BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

4653

EBAZPENA, 2026ko urriaren 23koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen baitira energia berriztagarrien bidez autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko (Eguzki Hotz) laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta 2026rako deialdia.

Energiaren Euskal Erakundea (aurrerantzean EEE), Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren menpeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoak bere gain hartzen ditu aurrezpena eta energia-efizientzia, energia-baliabide berriztagarriak, energia-dibertsifikazioa eta energia-azpiegituren sustapena bultzatzera bideratutako jardunak, betiere Euskadiko Autonomia Erkidegoaren (aurrerantzean EAE) esparruan.

Ildo horretan, EEE hainbat ekintza garatzen ari da 2030erako 3E-2030 Euskadiko Energia Estrategian jasotako helburuak betetzeko. Jarduketa horien artean aipatzekoak dira hainbat laguntza-programa, EAEko lurraldean instalazio eta eraikinetan energia berriztagarrien erabilearen sustapena bilatzen duten ekintzak sustatzeko.

Ildo horretan, 2030erako Euskadiko Energia Estrategia (3E2030) dokumentuan gauzatutako Eusko Jaurlaritzaren energia-politikaren helburuei jarraikiz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren misioa energia-kontsumoan efizientzia gehitzen laguntzea da, beharrezkoa den bultzada publikoaren bidez, eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruago bat lortzea, ingurumen-inpaktua gutxitu denez, kontsumorako edo produkziorako energia gutxiago beharko denez, eta kanpo energia-baliabideekiko dependentzia murriztuko denez.

Era berean, EAEko lurraldean energia berriztagarri elektrikoen hedapena sustatzea, eta horrez gain Irango gatazkaren ondorioak eta energia-prezioen ezegonkortasuna arintzea eta murriztea helburu gehigarria, bat datoz Gobernu Kontseiluak hartu berri duen erabakiarekin, zeinaren bidez, Euskadiko industria-ezkutuaren lehen neurri-sortan 1.047 milioi euro aktibatu diren, eta % 51,4ko igoera ezarri da enpresa txiki eta ertainak eraldatzeko eta dibertsifikatzeko laguntzetan. Laguntza-ardatzetako bat «Autonomia energetikoa» dela adierazten da, EEEren oinarrizko helburuetako bat baita. Gobernu Kontseiluak aurkeztutako neurrien helburua da euskal industriaren ordezkariek Ekialde Hurbileko gatazkaren ondorioei aurre egiteko helarazitako behar nagusiei erantzutea.

Euskadik klima-aldaketara egokitzeko eta eraikinak tenperatura altuen aurka prestatzeko beharra duenez, baina horrek energia menpekotasuna eta faktura elektrikoa handitzea ez eragiteko helburuarekin, beharrezkoa da euskal herritar guztiei «Eguzki Hotz» klimatizazio sistema jasangarriak ezartzeko pizgarriak ematea. Zentzu horretan, klimatizazio-sistema eraginkorragoak eta jasangarriagoak instalatzea erraztu nahi da, gero eta ohikoagoak diren bero-boladen aurrean tenperatura eta ongizatea hobetzeko gai izango direnak.

Ondorioz, energia berriztagarrien bitartez autokontsumorako instalazioak egiteko eta kontsumo elektrikoen elektrifikazioa helburu duten ekintzak sustatzeko helburu nagusiarekin diseinatu da laguntza-programa hau, bai eta Irango gatazkaren ondorioak arintzeko eta energia prezioen ezegonkortasuna murrizteko ere.

Horregatik guztiagatik, eta Energiaren Euskal Erakundearen organo artezkarien eginkizunak arautzen dituen martxoaren 5eko 64/1985 Dekretuak ematen dizkidan ahalmenen arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Energia berriztagarrien bidez autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntza-programaren (Eguzki Hotz) oinarri arautzaileak onartzea, zeinak eranskinean agertzen baitira, eta 2026rako deialdia, horrek lotuta gastua baimentzea dakarrelarik.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Eraginkortasuna.

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Baliabideak.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke EEEko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari ofizial berean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bilbao, 2026ko urriaren 23a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
MIKEL AMUNDARAIN LEIBAR.

ERANSKINA

EGUZKI HOTZ – Energia berriztagarrien bidez autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntza-programaren oinarri arautzaileak

Lehenengoa. Programaren xedea, araubide juridikoa eta laguntzaren nondik norakoa

3E2030 2030erako Euskadiko Energia Estrategia dokumentuan gauzatutako Eusko Jaurlaritzaren energia-politikaren helburuei jarraikiz, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren misioa energia-kontsumoan efizientzia areagotzen laguntzea da, beharrezkoa den bultzada publikoaren bidez, eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruago bat lortzea, ingurumen-inpaktua gutxitu denez, kontsumorako edo produkziorako energia gutxiago beharko denez, eta kanpo energia-baliabideekiko dependentzia murriztuko denez.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailari atxikitako erakunde publikoa den Energiaren Euskal Erakundeak (hemendik aurrera EEE) bere gain hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean EAE) sektore publikoaren energia-alorreko jarduera eta jarduketak planifikatu, koordinatu eta kontrolatzea, Eusko Jaurlaritzak bere eskumenen eremuan emandako jarraibideekin bat etorriz.

EAEn energia berriztagarri elektrikoak hedatzea sustatzea, eta Irango gatazkaren ondorioak eta energia-prezioen ezegonkortasuna apaltzea eta arintzea helburu osagarriak izanik, energia berriztagarrien bidez autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko **EGUZKI HOTZ** laguntza-programa (aurrerantzean Programa) hau osatu da. Gogoeta hori bat dator Gobernu Kontseiluak hartu berri duen erabakiarekin. Erabaki horren bidez, Euskadiko industria-ezkutuaren lehen neurri-sortan 1.047 milioi euro aktibatu dira, eta % 51,4ko igoera ezarri da enpresa txiki eta ertainak eraldatzeko eta dibertsifikatzeko laguntzetan. Laguntza-ardatzetako bat “Autonomia energetikoa” dela adierazten da, EEEren oinarrizko helburuetako bat baita. Gobernu Kontseiluak aurkeztutako neurrien helburua da euskal industriaren ordezkariek Ekialde Hurbileko gatazkaren ondorioei aurre egiteko helarazitako behar nagusiei erantzutea.

Euskadik klima-aldaketara egokitzeko eta eraikinak tenperatura altuen aurka prestatzeko beharra duenez, baina horrek energia menpekotasuna eta faktura elektrikoa handitzea ez eragiteko helburuarekin, beharrezkoa da euskal herritar guztiei “Eguzki Hotz” klimatizazio sistema jasangarriak ezartzeko pizgarriak ematea. Zentzu horretan, klimatizazio-sistema eraginkorragoak eta jasangarriagoak instalatzea erraztu nahi da, gero eta ohikoagoak diren bero-boladen aurrean tenperatura eta ongizatea hobetzeko gai izango direnak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (aurreratzean “DLO”) 8.1 artikuluan xedatutakoaren eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, EEEren Zuzendaritza Kontseiluak 2025eko otsailaren 5ean egindako bileran 2025-2028 urteetarako EEEren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (hemendik aurrera DPE) onartu zuen. Bertan, autokontsumorako elektrizitatea sortzeko eta energia berriztagarrien bidez kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntzen programa jasotzen da.

Programa hau indarrean dagoen EEEren DPEn integratzen da. Diruz lagundu daitezkeen jarduketek helburu horiek lortzen laguntzen dute, autokontsumorako energia elektriko berriztagarria sortzea, metaketa elkartua eta kontsumo termikoen elektrifikazio berriztagarria bultzatuz. Eguzki Hotz ekimenak eraikinak egokitzen, ongizate termikoa hobetzen eta mendekotasun energetikoa murrizten laguntzen du, Europako

Parlamentuan zehaztutako baldintzetan. Ekarpena DPEen ezarritako adierazleen bidez neurtuko da.

Programa honi dagokionez, helburuen aurreikuspena eta programak Planari nolako ekarpena egiten dion kontuan hartuz, aipatzekoa da informazio hau:

1. Diruz lagundutako proiektuen kopurua: 13.000
2. Instalatutako potentzia elektrikoa: 150 MW
3. Instalatutako biltegiratze elektrikoaren gaitasuna: 136 MWh
4. Instalatutako potentzia termikoa: 100 MW

EEEren indarreko Dirulaguntza Plan Estrategikoa honako helbide honetan dago eskuragarri: https://www.eve.eus/Corporativo/Portal-de-Transparencia/EVE.aspx

Bigarrena. Emandako laguntzen izaera.

Ematen diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzatzat hartuko dira.

Hirugarrena. Erkidegoko araudi aplikagarria.

1. Programa hau zein programa aplikatuz ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira barne-merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 107. artikuluko 3. atalean xedaturik dagoenaren arabera, eta salbuetsirik daude tratatu bereko 108. artikuluan Batzordeari jakinarazteko ezarrita dagoen betebeharretik.

   Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko 651/2014 zenbakiko EB Erregelamenduaren (aurrerantzean, 651/2014 Erregelamendua) arabera enpresatzat hartzen diren eskatzaileen kasuan (erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz (EBAO, 2014 L 187)), programa honetan aurreikusitako laguntzak aipatutako Erregelamenduaren esparruan sartzen dira, bai eta, hala badagokio, hura aldatzen, luzatzen edo ordezkatzen duen Europako araudiaren esparruan ere, eta bereziki 651/2014 Erregelamenduaren 41. artikuluan «Iturri berriztagarrietatik eratorritako energiaren sustapenerako inbertsioetarako laguntzak (...)» 2023ko ekainaren 23ko 2023/1315 Erregelamenduak, 651/2014 Erregelamendua eta 2022/2473 Erregelamendua (EBAO, L 167/1) aldatzen dituenak, egindako aldaketen ondoriozko azken idazketaren arabera.

   Nolanahi ere, laguntzak emateko baldintza izango da Estatu-laguntzen esparru juridiko bat izatea, laguntzei estaldura emango diena, eta aplikatzekoa den Europako araudian ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzea.

   Programaren indarraldia dirauen bitartean 651/2014 Erregelamendua aldatzen, luzatzen edo ordezten bada, ondoren ematen diren laguntzak aplikatzekoa den Europako araudiaren mende egongo dira, hargatik eragotzi gabe oinarri hauetan aldaketak egitea, hala badagokio, beharrezkoak badira araudi horretara egokitzen direla bermatzeko.

2. Programa honen ondorioetarako, eta 651/2014 Erregelamenduaren I. eranskineko «ETEaren definizioa» 1. eta 2. artikuluetan araututakoaren arabera, honako hau da enpresa: «Jarduera ekonomiko bat egiten duen erakunde oro, edozein dela ere haren forma juridikoa" (hau da, merkatu jakin batean ondasunak eta zerbitzuak

eskaintzean dituen edozein jarduera). Bereziki, enpresatzat hartuko dira, bakarka edo familiakoekin, artisautzako edo bestelako jarduerak egiten dituzten entitateak, baita erregulartasunez jarduera ekonomikoren bat gauzatzen duten pertsona sozietateak eta elkarteak ere».

3. 651/2014 Erregelamenduaren barnean hartuta dauden laguntzaren xede diren proiektuek frogatu beharko dute Programa honen babesak eragin sustagarria duela (651/2014 Erregelamenduko 6. artikulua). Xede horietarako, laguntzek eragin sustagarria dutela ulertuko da baldin eta onuradunak, dirulaguntzaren xede den proiektuan edo jardueran lanean hasi baino lehen, 651/2014 Erregelamenduko 6.2 artikuluan adierazitako informazioa, gutxienez, jasotzen duen laguntza-eskaera bat aurkeztu badu. Horrenbestez, ez dira onartuko 651/2014 Erregelamenduaren esparruan dauden proiektu eta lanetarako eskaerak baldin eta laguntza eskatu aurretik gauzatzen hasiak baldin badira, 651/2014 Erregelamenduaren 2.23) artikuluaren definizioa ulertuta proiektuaren edo lanen hasieratzat. Horregatik, dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak gauzatzeko konpromiso irmo oro, onartutako aurrekontuak, eskaerak, kontratuak, fakturak eta ordainketa-egiaztagiriak laguntza-eskaeren ondorengoak izatea eskatuko da, jarduera ekonomiko bat egiten duten eta merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaintzen dituzten onuradunen kasuan.

Laugarrena. Onuradun izateko baldintza betetzeko eskakizunak.

1. Honako hauek izan daitezke laguntza baten onuradun, jarduera-tipologia bakoitzerako aurreikusitakoaren arabera:

   a) Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten ez duten pertsona fisikoak edo izaera pribatuko pertsona juridikoak.

   b) Merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona juridikoak, izaera pribatukoak, edo pertsona fisikoak.

   c) Partzuergoak, enpresen edo pertsona fisikoen elkarteak edo taldeak, nortasun juridikoa dutenak edo ez dutenak, honako hauek barne, besteak beste:

      1. Jabetza horizontalari buruko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen arabera araututako egoitza sektoreko jabekideen erkidegoak, azaroaren 17ko 38/2003 Legean aurreikusitakoa bete beharko dutenak.

      2. Energia berriztagarrien erkidegoak eta herritarren energia-erkidegoak, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabileraren sustapenari buruzko 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/2001 Zuzentarauaren arabera, eta, hurrenez hurren, 2012/27/EB Zuzentaraua aldatzen duen eta elektrizitatearen barne-merkaturako arau erkideei buruzko 2019ko ekainaren 5eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/944 Zuzentarauaren arabera, baita energiaren alorrean eta susperraldi ekonomikorako beste esparru batzuetarako neurriak onartzen dituen ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluaren arabera ere.

         Pertsona onuradun hauek merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten dutenak edo egiten ez dutenak izan daitezke. Hala ere, jarduera ekonomikorik egiten ez dutela kontsideratzeko, honako baldintza hau bete beharko da: bazkide guztiak jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoak izango dira edo/eta Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legeak araututako egoitza-jabeen erkidegoak.

d) EAEko administrazio Orokorra, dagozkion Foru Aldundiak, bai eta, beren kapital sozialean, ehuneko 50etik gorako zuzeneko zein zeharkako partaidetza edo harekiko nagusitasun posizioa duten EAEko Administrazio Orokorraren edo dagozkion foru aldundietako entitate, erakunde publiko, fundazio eta sozietate guztiak.

e) Estatuko Administrazio Orokorraren menpeko portu-agintaritzak, baldin eta EAEn baldin badaude.

2. Ezin izango dira laguntzen pertsona onuradun izan:

a) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartutako azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduko (aurrerantzean, DEO) 21. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako bat betetzen ez dutenak.

Testuinguru horretan, laguntzaren eskatzaileak sinatuko du, laguntza-eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat, dirulaguntzak edo laguntzak itzultzeko betebeharrik ez daukala, edo, bidezko bada, betebehar horiek bete izana, egiaztatzen duena, 21. artikulu horretan ezarritakoari jarraikiz.

b) DLOaren 13.2 eta 13.3 artikuluetan eta 20/2023 Legearen 13.1, 13.2, 13.3 eta 13.4 aurreikusitako zirkunstantzietako batean daudenak.

Inguruabar horiek betetzen direla egiaztatzeko, 20/2023 Legearen 13.6.etik 13.9.era bitarteko artikuluetan eta Diru Laguntzen Erregelamenduaren 22 bis eta 23. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio, eta, bereziki, II. eranskinean («Dokumentazioa») xedatutako dokumentazioaren bidez. Horrez gain, Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak eta dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak egiaztatzeko, Ekonomia eta Ogasun sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan xedatutakoa beteko da; agindu hori zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da, bai eta dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan. Testuinguru horretan, aurrez aipatutako bi arauek halakorik ahalbidetzen dutenean, aurreko azpiatalean adierazitako artikuluetan deskribatutako zirkunstantzietan ez daudela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahalko dute pertsona eskatzaileek.

Horri dagokionez, zerga-arloko Administrazioan, Gizarte Segurantzaren Administrazioan edota gaituta dagoen eta zirkunstantzia horiek betetzen direla egiaztatzeko prozedura tramitatzen den bitartean beharrezkoa den Administrazioen arteko beste edozein elkarreragingarritasun-zerbitzutan kontsultatuko du zuzenean informazioa EEEk. Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du pertsona eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion justifikazio-dokumentazioa aurkeztu beharko du.

c) Estatuko Administrazio Orokorraren mendeko edozein erakunde, EAEn kokatutako portu-agintaritzez bestelakoa.

3. Era berean, ezin izango dira diru-laguntzen onuradun izan jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsonak, baldin eta egoera hauetakoren batean badaude:

a) DLOaren 13.3bis artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.5 artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako batean daudenak.

b) EBk ezarritako zigorren eraginpean dauden enpresak, besteak beste, honako hauek:

1º Zigor horiek ezartzen dituzten egintza juridikoetan berariaz izendatutako pertsonak, erakundeak edo organismoak;

2º Europar Batasunak (aurrerantzean EB) ezarritako zigorren eraginpeko pertsona, erakunde edo organismoen jabetzakoak diren edo haien kontrolpean dauden enpresak; edo,

3º EBk ezarritako zigorren eraginpeko industrietako enpresa aktiboak, laguntzak dagozkion zigorren helburuak ahultzen dituen neurrian.

c) 651/2014 Erregelamenduaren 1. artikuluaren 2. apartatutik 5. apartaturaino identifikatutako sektoreetako enpresak edo jarduerak.

d) Krisi-egoeran dauden enpresak, horretarako 651/2014 Erregelamenduan eta krisian dauden enpresa ez-finantzarioen salbamendurako eta berregituraketarako laguntzei buruzko Erkidegoko zuzentarauetan (Batzordearen 2014/C 249/1 Komunikazioa, 2014ko uztailaren 31koa) egiten den definizioaren arabera.

e) Lehenago eman dieten edozein laguntza edo dirulaguntza berreskuratzeko agindu bat betetzeke duten enpresak, laguntza legez kanpokotzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jo zelako edo emakidan esleitu zieten edozein betebehar urratu zutelako.

f) Helburu sozial edo dedikazio osoa edo zati bat armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketa duten enpresak, Euskal Autonomia Erkidegoko herrialde pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legearen arabera.

g) Ekonomia zirkular baterako kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozleetako batean erori direnak.

4. Enpresa-tamainaren kalkuluari dagokionez, mikroenpresen, enpresa txiki eta ertainen (aurrerantzean ETE) kategoria honako enpresa hauek osatzen dute: gutxienez 250 langile dituztenek, urteko negozio-bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez dutenek, edo urteko balantze orokorra 43 milioi eurotik gorakoa ez dutenek.

ETEen kategorian enpresa txikia honela definitzen da: gehienez 50 langile izanik, urtean 10 milioi euroko negozio-bolumena edo balantze orokorra gainditzen ez duen enpresa.

ETEen kategorian mikroenpresa honela definitzen da: 10 langile baino gutxiago izanik, urtean 2 milioi euroko negozio-bolumena edo balantze orokorra gainditzen ez duen enpresa. Enpresa beste enpresa batzuekin elkartuta edo haiekin lotuta badago, horrela sortutako enpresa-taldeak bete beharko ditu aurreko betebehar horiek.

ETE gisa katalogatzeko, 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 4., 5. eta 6. artikuluetan eta I. eranskinean «ETEaren definizioa» ezarritakoa hartuko da kontuan, zeinaren bidez zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen diren, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko

Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz, 2023ko ekainaren 23ko 1315/2023 (EB) Erregelamenduak aldatu zuena, (2023-06-30e AO, L 167).

Era berean, enpresa elkartu edo lotu gisa kategorizatzeko, aipatutako erregelamenduaren I. eranskinean adierazitakoa beteko da. Era berean, krisialdian dagoen enpresa gisa kalifikatzeko Erregelamendu horretako 2.18 artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

Bosgarrena. Aurrekontu-zuzkidura eta eskaerak aurkezteko epea.

1. Programa honetara laurogei milioi euro (**80.000.000 €**) bideratuko dira guztira, EEEren aurrekontuetan horretarako ezarritako kredituaren arabera, eta oinarri hauetan aurreikusitako jarduketa diruz lagungarrietarako honako zenbateko hauen arabera banatuta:

   a) Autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazio berriak, energia berriztagarrien iturriak dituztenak, egiteko inbertsioak, lehendik dauden instalazioak handitzea, bai eta energia elektrikoa sortzeko instalazio berriei zein lehendik dauden instalazioei lotutako biltegiratze-instalazioak ere: 60.000.000 €

   b) Kontsumo termikoak energia berriztagarrien bidez elektrifikatzeko instalazioak egiteko inbertsioak: 20.000.000 €

   Diruz lagun daitekeen jarduera bakoitzaren aurrekontua, salbuespen gisa, % 100 handitu ahal izango da, diruz lagunduko diren jardueren eskaeraren eta garapenaren arabera, baldin eta deialdi honetan proposatutako helburuetarako aurrekontu-baliabiderik badago eta deialdiaren indarraldia amaitu ez bada. Igoera EEEren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez erabakiko da, eta ebazpen hori EHAAn eta EEEren webgunean argitaratuko da. Gehikuntza argitaratzeak, berez, ez du ekarriko eskaerak aurkezteko beste epe bat irekitzea, ezta ebazteko beste epe bat hastea ere.

   Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, diruz lagun daitezkeen jarduketen artean geratzen diren funtsen saldoa konpentsatu ahal izango da, dauden eskaeretako ahal diren gehienak konprometitzeko.

2. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (aurrerantzean EHAA) argitaratu eta hurrengo egun balioduneko 8:00etan hasiko da Programa honetarako laguntza-eskabideak aurkezteko epea, eta Programarako aurrekontua agortzen den unean amaituko da.

   Nolanahi ere, aurrekontu eskuragarririk egon zein ez, laguntza-eskaerak aurkezteko epea **2028ko irailaren 29an, ostiralez,** amaituko da, deialdian aurrekontu eskuragarririk baldin balego ere. Aipatutako epea amaitutakoan ez da beste eskaerarik onartuko, inolako kasutan. Dena den, esleitutako aurrekontua agortzen bada eta betiere programaren indarraldia amaitu ez bada (2028ko irailaren 29an), eskaerak erregistratu ahalko dira behin-behineko erreserba-zerrendan, eta sarrera-ordenari zorrotz jarraikiz erantzungo zaie, positiboki ebatzitako aldez aurreko laguntza-eskaeretan izaten diren ezespen edo errebokazioen arabera, aurrekontua askatu ahalko luketenak, edo deialdian aurrekontu berri bat sartzen bada. Eskaera bat behin-behineko erreserba-zerrendara aurkezteak ez dio ezein eskubide sortuko pertsona eskatzaileari laguntza-eskaera ebazten ez den arte.

   Aurrekontua agortu dela jakinaraziko da, bai ekintza-lerro bakoitzari dagokionez, bai Programa osoari dagokionez ere. Bi kasuetan, EEEko Zuzendaritza Nagusiaren

ebazpenaren bidez egingo da, eta EHAAn eta EEEren Interneteko helbidean argitaratuko da: www.eve.eus.

3. Epeak zenbatzeko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. artikuluan xedatutakoa egongo da indarrean.

4. Jada aurkeztuta dauden eskaerak –ongi egindakoak eta osoak izanik eta tramitazio-fasean egonik– esleitutako aurrekontu-zuzkidura agortu delako ezin badira erantzun, ezetsi egingo dira arrazoi hori dela-eta, EEEko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez.

Seigarrena. Diruz lagungarriak diren jarduerak eta laguntzen zenbatekoa.

1. Jarraian aipatzen diren jarduerek jaso ahal izango dute dirulaguntza, baldin eta EAEn kokatuta badaude, sortutako eta biltegiratutako energia guztia EAEn ere kontsumitzen bada eta, gainera, oinarri arautzaile hauetako I. eranskinean («Diruz lagun daitezkeen jarduerak, kostu subentzionagarriak eta laguntzen zenbatekoa») bakoitzarentzat ezarritako baldintzak betetzen badituzte:

   a) Autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazio berriak, energia berriztagarrien iturriak dituztenak, egiteko inbertsioak, lehendik dauden instalazioak handitzea, bai eta energia elektrikoa sortzeko instalazio berriei zein lehendik dauden instalazioei lotutako biltegiratze-instalazioak ere.

   b) Kontsumo termikoak energia berriztagarrien bidez elektrifikatzeko instalazioak egiteko inbertsioak.

   Eskaerak onartzeko hautapen-aldiaren ondorioetarako, jarduera ekonomikorik ez duten onuradunen kasuan, exijitzen da gauzatzeko konpromiso irmo oro, hala nola onartutako aurrekontuak, eskaerak, kontratuak, fakturak eta horien ordainketa-egiaztagiriak, bai eta sortze-elementuak martxan jartzeko erantzukizunpeko adierazpena ere, organo eskudunaren zigiluarekin, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera (barne) datatuta egotea.

   Ildo beretik, eskaerak onartzeko hautapen-aldiaren ondorioetarako ere, jarduera ekonomikoa duten onuradunen kasuan, eskatzen da gauzatzeko konpromiso irmo oro, hala nola onartutako aurrekontuak, eskaerak, kontratuak, fakturak eta horien ordainketa-egiaztagiriak, eta sortze-elementuak martxan jartzeko erantzukizunpeko adierazpena, organo eskudunaren zigiluarekin, dagokion laguntza-eskaeraren dataren ondoren eginak izatea.

2. Oinarri hauetako «Diruz lagun daitezkeen jarduerak, diruz lagun daitezkeen kostuak eta laguntzen zenbatekoak» izeneko I. eranskinean zehaztu dira diruz lagun daitezkeen jarduerak, diruz lagun daitezkeen kostuak eta onuradunek jaso ditzaketen laguntzen zenbatekoak.

3. Energia elektrikoa sortzeko instalazioen jarduketetan, pertsona onuradunek adierazi beharko dute aurreikusten dutela laguntzaren xede den autokontsumo-instalazioari lotutako kontsumitzaileak edo kontsumitzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren urteko batura instalazio horrek urtean sortutako energiaren % 80 edo gehiago izango dela betiere, II. eranskinean, «Dokumentazioa», ezarritakoaren arabera.

4. Jarduerak energia-zerbitzuetako enpresen (aurrerantzean "EZE") bidez egin ahal izango dira, eta halakotzat hartuko dira Susperraldi ekonomikoa eta enplegua bultzatzeko neurriei buruzko apirilaren 9ko 6/2010 Errege Lege Dekretuaren 19.

artikuluko definizioan barne hartutakoak, betiere honako baldintza hauek betetzen badira.

a) Laguntza-eskaera onuradunaren izenean erregistratuko da (EZEren bezeroa), eta, gainera, onuradun izaera eduki beharko du, laugarren oinarriari jarraiki.

b) Onuradunak laguntza EZEri egotziko dio.

c) EZEak energia-zerbitzuen kontratu baten bidez jardun beharko du, adierazitako kontratuaren bitartez Programa honetan aurreikusitako laguntza proiektua gauzatzen duen instalazioen azken jabeari edo ustiatzaileari jasanaraziz, laguntzaren onuraduna izaki.

EZEak IDAEko zerbitzu energetikoen hornitzaileen zerrendan erregistratuta egon beharko du, https://www.idae.es/proveedores-de-servicios-energeticos.

5. Jarduketak finantza-errentamenduaren bidez (leasing) finantzatu ahal izango dira, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Laguntza-eskaera erosteko aukera gauzatzeko eskubidea duen errentariaren izenean erregistratuko da, eta horrek onuradun izaera eduki beharko du, laugarren oinarriari jarraiki.

b) Finantza-errentamenduaren dokumentuak diruz lagundutako jarduera gauzatzeko konpromisoa jaso behar du.

c) Kontratua amaitzean erosteko aukera gauzatzeko konpromisoak loteslea izan behar du kontratuaren hasieratik.

Zazpigarrena. Dirulaguntzetarako muga orokorrak.

1. Laguntzen zenbatekoaren muga orokorra pertsona onuraduneko.

Seigarren oinarrian eta I. eranskinean («Diruz lagun daitezkeen jarduerak, kostu subentzionagarriak eta laguntzen zenbatekoa») adierazitakoaren arabera.

2. Bateragarritasun-erregimena beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin

a) 651/2014 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren ondorioetarako enpresatzat jotzen diren onuradunek jasotzen dituzten laguntzak bateragarriak izango dira proiektu edo jarduketa bererako eman daitezkeen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik datozenak, laguntza-neurri horiek kostu subentzionagarri desberdinekin lotuta badaude edo laguntza-neurriak guztiz edo zatiz kostu subentzionagarri berdinekin bat datozenean eta haien metaketak ez badu gainditzen aplikagarria den laguntza-intentsitatea edo laguntza kopuru handiena, 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, zeinaren bidez zenbait kategoria barne-merkatuarekin bateragarriak direla adierazten baita, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak (EBAO L 187, 2014-06 26koa) eta, zehazki, Tratatuaren 41. artikuluak «Iturri berriztagarrietatik sortutako energia sustatzeko inbertsiorako laguntzak (...)» aplikatuz (EB) 1315/2023 Erregelamenduak, 2023ko ekainaren 23koak (EO, L 167, 2023-06 30ekoa) aldatua.

Baldin eta zuzenean edo zeharka estatu kidearen kontrolpean ez dagoen Batasuneko instituzioek, agentziek, enpresa erkideek edo beste organo batzuek zentralki kudeatzen duten Batasunaren finantzaketa Estatuaren laguntzekin

konbinatzen bada, azken horiek soilik hartuko dira kontuan jakinarazteko atalaseak eta laguntzen gehieneko intentsitateak errespetatzen ote diren erabakitzeko, betiere diruz lagun daitezkeen kostu berei dagokienez emandako finantzaketa publikoaren zenbateko osoak ez baditu gainditzen Europako araudi aplikagarrian ezarritako gehieneko finantzaketa-ehunekoak.

b) Gainerako onuradunentzat, jaso beharreko laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako eman daitekeen beste edozein diru-laguntza edo laguntzarekin, baldin eta, oro har hartuta, proiektua gainfinantzatzen ez bada, hau da, inbertsioaren % 100 baino gehiago diruz laguntzen ez bada, DLOaren 19. artikulua eta 20/2023 Legearen 16. artikulua aplikatuz.

c) Edonola ere, gainfinantzaketa saihestearren eta DLOaren 19. artikulua aplikatuz, baita 20/2023 Legearen 16. artikulua ere, emandako laguntzen kopuruak ezein kasutan ezin izango du, isolaturik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

d) Beste erakunde batzuetatik datozen laguntzak EEEren aldetik dirulaguntza emateko ebazpenaren ondoren gauzatzen badira, pertsona onuradunak EEEri jakinarazi beharko dio, eta laguntza multzoaren azterketatik ondorioztatzen bada aurrerakin itzulgarriaren zenbatekoa murriztu beharra, laguntza guztiz edo partzialki errebokatzeko dagokion ebazpenaren bitartez jakinaraziko da, eta azkenean dagokion laguntzaren kopuruaren ordainketaren aurretik.

3. Diruz lagundutako jarduerak beste batzuekin azpikontratatzea edo kontratatzea

a) DLOaren 29. artikuluan eta DEOaren 68. artikuluan eta 20/2023 Legearen 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, pertsona onuradun bat azpikontratatzen ari dela esaten da hirugarrenekin adosten duenean dirulaguntzaren xede den jardueraren egikaritze osoa edo partziala. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da laguntzaren onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko izan behar dituen gastuen kontratazioa.

Horri dagokionez, hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era iritsi ahalko da, eta aplikagarriak izango dira DLOaren 29. artikuluan, DEOren 68. artikuluan eta 20/2023 Legearen 31. artikuluan jasotzen diren gainerako aurreikuspenak.

DLOren 29.7.d) artikuluan eta 20/2023 Legearen 31.7.d) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, baimena ematen da jarduerak osorik edo zati batean onuradunarekin lotutako erakundeekin hitzartzeko, baldin eta:

1. Aldez aurretik EEEren esanbidezko baimena lortzen bada; eta,

2. Dagokion zenbatekoak ez badu gainditzen lotutako erakundeak egin duen kostua (hau da, lotutako enpresak jasandako gastuen eta laguntzaren eskatzaileari jasanarazitakoen artean gehikuntzarik ez baldin badago). Kasu horietan, justifikatzeko garaian, kostu erreal horien egiaztapena onuradunaren gastuak egiaztatzeko ezarritako baldintza berberetan egin behar da.

b) Dirulaguntzei buruzko Legearen 31.3 artikuluan eta 20/2023 Legearen 30.3 artikuluan xedatutakoa betez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (aurrerantzean SPKL) aplikazio-araudia bazter utzi gabe, pertsona eskatzailearen izaera juridikoaren arabera, Kontratazio Publikoaz diharduen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoek, kontratu txikiari dagokionez (15.000 € edo goragokoa, BEZik gabe, zerbitzu eta horniduretarako, eta 40.000 € edo goragokoa, BEZik gabe,

obretarako), laguntzaren pertsona eskatzaileak gutxienez hiru eskaintza eduki beharko ditu hiru enpresa hornitzaile ezberdinenak, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada haiek gauzatu, eman edo hornitzeko.

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak kontuan hartuta egin beharko da, eta espreski justifikatuta geratu beharko du, baldin eta ekonomikoki onuragarria den proposamena ez denean.

Zortzigarrena. Tramitatzeko kudeaketa eta prozedura

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren arabera, Programa honi lotutako espedienteen tramitazio guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta gainerako gestioak) baliabide elektronikoak erabiliz egingo dira, EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» atalaren bitartez (https://www.euskadi.eus/micarpeta) eta Eusko Jaurlaritzaren –Tramitagune– tramitazio elektronikoko aplikazioa erabiliz, euskadi.eus webgunean eta EEEren webgunean HYPERLINK "http://www.eve.eus" erabilgarri dagoena. Hori guztia, pertsona fisikoen kasurako 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa batean, tramitaziorako jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak daude eskuragarri, eta horren bitartez, eskaera-formularioan sartzen da; hemen dago eskuragarri: https://www.euskadi.eus eta www.eve.eus.

Dirulaguntzak eskatu eta tramitatzearekin zerikusia duen edozein tramite edo dokumentu elektronikoki aurkezten bada, sinadura elektroniko aitortu bat eduki beharko du, 91/2023 Dekretuaren 71. artikuluan xedatutakoaren arabera. EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartutako identifikazioko eta sinadura elektronikoko bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: https://www.euskadi.eus/certificados-electronicos.

Aipatutako kanal elektroniko bidez eskaeraren ondoren egin beharreko tramiteak, hala nola, jakinarazpen eta justifikazioak, EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: https://www.euskadi.eus/micarpeta.

Laguntza-eskaera osatugabea balego, akatsekin edo oinarri hauetan eskatzen dena bete gabe, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio pertsona interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita, eta hori egin ezean, eskaera bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez, 39/2015 Legearen 21. artikuluaren arabera.

Pertsona juridiko batek eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, horretarako aurreikusitako bide elektronikoaz gain, elektronikoki aurkeztuz zuzentzeko eskatuko zaio interesdunari.

Bederatzigarrena. Laguntza-eskaera eta hautatzeko aldia.

1. Seigarren oinarrian aipatzen den jarduketa mota subentzionagarri bakoitzeko eskabide bakarra aurkeztu beharko da.
2. Elektrizitatea sortzeko eta/edo biltegiratzeko instalazioen kasuan, deialdi honen barruan, onuradun bakoitzak laguntza-eskaera bat baino gehiago egin ahal izango du, kokalekuaren arabera edo kontsumo berari edo kontsumoei lotuta, aurreko eskaera batean diruz lagundutako instalazioa handitzeko, baldin eta eskaera hori organo eskudunaren aurrean fakturatuta, ordainduta eta erregistratuta badago. EEEk zuzenean egiaztatuko du hori hala dela. Gainera, eskaera bakoitzaren dokumentazio guztia modu erabat bereizian eta autonomoan aurkeztu beharko da.
3. Oinarri hauen arabera, dirulaguntzaren eskaeraren inprimakia eta berarekin batera bidali behar den dokumentazioa, zortzigarren oinarrian aipatutako aplikazio informatikoaren bidez bidali beharko da, bosgarren oinarrian adierazten den epearen barruan.
4. Eskaeraren aurkezpen-ordenari zorrotz jarraikiz erantzungo zaie eskaerei, laguntza-eskaerak ebazteko ordenari dagokionez hamargarren oinarriaren lehen paragrafoan adierazitakoa bazter utzi gabe, funtsak agortzen diren arte.
5. Laguntza-eskaerekin batera, oinarri hauen II. eranskinean, «Dokumentazioa», aipatutako dokumentazio guztia aurkeztuko da, diruz lagundu nahi zaion jarduketa-motaren arabera. Nolanahi ere, EEEk pertsona eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

Hamargarrena. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea.

1. Aurreikusitako laguntzak beste proposamen batzuekin konparaziozko baloraziorik behar ez duten jarduera edo egoera zehatzak finantzatzeko erabiltzen direla kontuan izanik, laguntzak emateko ebazpenak elkarren segidako konkurrentzia-prozedura baten bidez emango dira, diruz lagun daitekeen egoera edo jarduera eta eskatutako gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte. Horrenbestez, aurkeztu diren hurrenkera zehatzaren arabera aztertuko eta tramitatuko dira eskaerak.
2. Laguntzen Arloa izango da, EEEko Balioko Zerbitzuen eta Laguntzen Zuzendaritzaren barruan kokatua, espedienteen antolamendu eta kudeaketarako organo eskuduna.

   Bere aldetik, EEEko Zuzendaritza Nagusiak ebazpena eman eta jakinarazpena eskatzaileari helaraziko dio sei (6) hilabeteko gehieneko epean, dirulaguntza-eskaera aurkezten den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igarotakoan ez bada esanbidezko ebazpenik eman, pertsona eskatzaileek ezetsitzat hartu ahal izango dute beren eskaera, 20/2023 Legearen 22. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, 39/2015 Legearen 25. artikuluan jasotakoaren ondorioetako, baina, hala eta guztiz ere, EEEk egindako eskaeraren esanbidezko ebazpena eman behar du. Ebazpenen jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/.Hori guztia erreserba-zerrendan dauden eskaeretarako bosgarren oinarrian aurreikusitakoaren kaltetan izan gabe.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

Ebazpenean honako hauek adieraziko dira esanbidez, 20/2023 Legearen 22.3 artikuluan adierazitako edukiaz gain: (i) laguntzaren xede den jarduketa, (ii) haren zenbatekoa (kopuru gordin gisa, laguntzaren pertsona onuradunaren izaeragatik egokiak diren zerga-betebeharrak alde batera utzi gabe), (iii) interesgarritzat jotzen diren bestelako alderdiak eta (iv), hala badagokio, ukatzeko arrazoiak.

3. Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, pertsona eskatzaileak hautazko birjartze-errekurtsoa jarri diezaioke EEE Energiaren Euskal Erakundeko Zuzendaritza Nagusiari hilabeteko (1) epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Bilbon dagokion epaitegian bi (2) hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluarekin bat etorriz; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena.

4. Azkenik, maiatzaren 14ko 3/2026 Legeak (aurrerantzean, “3/2026 Legea"), DEOaren 30. artikuluak eta 20/2023 Legearen 15. artikuluak dioenarekin bat etorriz, Programa hau amaitu eta gero, EEEk bere Gardentasun Atarian eta Euskadiko Dirulaguntzen Erregistro Orokorrean (KKB Kontrol Ekonomikoko Bulegoari helaraztearen bidez) argitaratuko ditu programa honen emango diren dirulaguntzak, eta legeak eskatzen dituen datuak ere azalduko dira bertan.

Hamaikagarrena. Inbertsioa egin izana eta laguntzak ordaindu izana justifikatzea.

1. Laguntzen pertsona onuradunek gehienez ere hemezortzi (18) hilabeteko epean justifikatu beharko dute EEEren aurrean laguntzaren xede den jarduera egin izana, fakturazioa eta ordainketa, emakidaren ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, eta, betiere, **ez 2029ko urriaren 31 (asteazkena) baino geroago**, elektronikoki, zortzigarren oinarrian adierazitako aplikazio informatikoaren bidez.

   Dokumentu guztiak PDF formatuan aurkeztuko dira, testua pantailan horizontalean bistaratuta eta ahal bada trinkotu gabe.

2. Laguntzen pertsona onuradunak oinarri hauen II. eranskinean, «Dokumentazioa», aipatzen diren eta aplikagarriak diren agiri guztiak aurkeztu beharko ditu, eta, zehazki, pertsona onuradun-motaren eta egin den jarduketaren (pizgarri-lerroak) arabera adierazita daudenak.

3. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari ordaintzeari buruzkoak bete direla jasotzen duten ziurtagirien akreditazioa automatikoki eta ofizioz egiaztatuko du EEEk, Nafarroako Foru Aldundiari eta Estatuko Zerga Agentziari buruzko ziurtagirien akreditazioa izan ezik.

   Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du pertsona eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion ziurtagiria edo eskatutako dokumentua aurkeztu beharko du, eta hori guztia 39/2015 Legearen 28. artikuluaren 2. paragrafoan xedatutakoari jarraikiz.

   Zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ogasuneko sailburuaren aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

Kasu horretan ez da inolako ordainketarik egingo pertsona onuraduna ez badago egunean zerga-alorrean edo Gizarte Segurantzaren aurrean dauzkan betebeharrei dagokienez, edota zorduna bada, itzulketa-betebeharra dakarren ebazpen baten ondorioz.

4. Laguntzaren onuradunak aurkeztu beharko du dokumentazioa, edo haren legezko ordezkariak, behin jarduketa erabat bukatutakoan, egintza bakarrean eta osorik. Horrela, justifikatzeko aurkeztu den dokumentazioa osatugabe badago, akatsak baditu edo postaz nahiz aurrez aurre aurkeztu bada, laguntzaren pertsona onuradunari, zuzenketa-eskaerako dagokion idazkiaren bidez, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio zuzentzeko, laguntzaren pertsona onuradunak zuzenketa-jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera zenbatuta (39/2015 Legearen 68. artikulua).

5. Justifikazioa ezarritako epean ez aurkezteak, laguntza kobratzeko eskubidea galtzea, emandako laguntza errebokatzea eta Dirulaguntzei buruzko Legean ezarritako gainerako erantzukizunak ekarriko ditu berekin.

   Jarduketak egikaritzeko epeak aurreikusi ezin diren arrazoiengatik soilik zabaltzea baimenduko da (luzapena), betiere hasiera batean onartutako denbora-epea baino lehen organo emaileak eskatzen eta onartzen badu, eta behar bezala justifikatutako aurreikusi ezin diren zirkunstantzien ondorio denean, baldin eta jarduketa horiek betetzea ezinezko egiten badute, laguntzen pertsona onuradunek eska dakizkiekeen gutxieneko neurri teknikoak eta plangintza-neurriak hartu badituzte ere.

   Luzapen-eskaera, gehienez ere, proiektuaren egikaritzea amaituta egon behar den eguna baino 30 egun lehenago egin behar da. Nolanahi ere, ez da baimenik emango laguntza jaso duen jarduketa egiteko epeak luzatzeko edo zabaltzeko, baldin eta, guztira, 24 hilabete baino gehiago badira –18 hilabete, hamaikagarren oinarri honen 1. apartatuan adierazten den bezala, gehi 6 hilabete hamaikagarren oinarri honen 5. azpiatal honetan aurreikusitako gehieneko luzapenari dagozkionak–, laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatuta eta, betiere, **inoiz ez 2029ko urriaren 31 baino geroago.**

6. Eskatutako dokumentazioa jasotakoan aztertu egingo da. Aurkeztutako dokumentazioari balorazio positiboa ematen bazaio, EEEk laguntza ordainduko du.

   Aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa kontrastatutakoan, ikusten bada, inbertsioa gauzatu eta Programa honen helburua bete arren, dirulaguntzaren azken zenbatekoak hasieran emandakoa baino txikiagoa izan behar duela, laguntzaren errebokazio partzialeko espediente bati emango zaio hasiera.

   Aitzitik, pertsona onuradunak hamaikagarren oinarri honetan edo oinarri hauetan edo/eta dirulaguntzaren arloan ezarritako araudian aurreikusitako terminoetan adierazitako justifikazio-betebeharra beteko ez balu, EEEk laguntza guztiz edo zatiz errebokatzeko espediente bat hasiko du, hamalaugarren oinarrian azaldutako mailakatze-irizpideei jarraituz eta, betiere, proportzionaltasun-printzipioarekin bat etorriz.

   Laguntzaren bi baliogabetze-kasuetan, laguntza osorik edo zati batez kobratzeko eskubidearen galera deklaratuko da, kasuaren arabera.

7. Laguntzaren pertsona onuradunak horretarako adierazitako banku-kontuan ordainduko du EEEk dirulaguntza, jarduketa subentzionagarria amaitu ondoren, eta lortu nahi ziren helburuen betetze-maila eta egindako gastuak egiaztatzeko aukera emango duen, baita edozein itzultze-prozedura amaitu dela, eta laguntzaren ordainketa jaso ahal izateko dirulaguntza-araudian ezarritako gainerako baldintza eta

betebeharrak bete direla jasotzen duen dokumentazioa egiaztatzeko aukera ere emango duen dokumentazioa EEEri aldez aurretik aurkeztuta.

8. Ezin izango dute laguntzaren ordainketa jaso EAEko Administrazioko eta haren sektore publikoko edozein entitatek eta/edo EEEk emandako izaera bereko laguntzei edo dirulaguntzei dagozkien kopuruak itzultzeko betebeharrak betetzeke dauzkaten pertsona onuradunek. Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko dirulaguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldian edo bide betearazlean.

   Pertsona onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela onartzeko, hauxe izango da irizpidea: dirulaguntza horiek emandako EAEko sektore publikoari dagokion edozein entitaterekin edo EEErekin zorrik ez izatea, epealdi betearazlean, dirulaguntzak itzultzeari dagokionez, edo pertsona onuradunei zein erakunde laguntzaileei premiamendu-bidea ezarri edo aurrera eramaterik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldian zorrik ez izatea.

   Era berean, pertsona onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertuko da zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo bertan behera uzteko erabaki bada, itzultzeko dagokion ebazpena aurkaratuz gero (DEOaren 21. artikulua).

9. 20/2023 Legearen 34. artikulua aplikatuz, behin itzultze-prozedura hastea erabakita, kautelazko neurri gisa, EEEk erabaki ahal izango du onuradunari ordaintzeko dauden zenbatekoen ordainketa etetea, Administrazioak berak emandako beste dirulaguntza batzuetatik eratorritakoak, betiere itzultze-espedientea hasteko proposamenean edo ebazpenean zehaztutako zenbatekoa gainditu gabe, une horretara arte sortutako berandutze-interesekin.

10. EEEk laguntzaren onuradunari eskatu ahalko dio laguntza-justifikazioa behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

Hamabigarrena. Laguntzaren xede den jarduketaren eta espedientearen dokumentuak egiaztatzea.

Dirulaguntzaren xede den jarduketa benetan gauzatu dela eta Oinarri hauetara eta aipatutako gainerako araudira egokitzen dela egiaztatzeko xedearekin, EEE Energiaren Euskal Erakundeak subentzionatutako proiektuak egiaztatu ahalko ditu, egindako inbertsioen zenbait argazki adierazgarri egitea barne. Nolanahi ere den, EEEk beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahal izango du; betiere, dirulaguntzen erabilera egoki bat egin dela ziurtatu nahian.

Berrikuspenak estatistikoki esanguratsua den espediente kopuru bat bilduko du, laguntza kopuru handiena daukaten eragiketei emanez lehentasuna, eta aniztasuna barne hartuz eremu geografikoari eta onuradunen tipologiari dagokienez. Aukeratutako laginak, emandako laguntzen zenbateko osoaren % 25 bilduko du gutxienez, eta espedienteen kopuruan % 5eko minimoa.

Dirulaguntza jasotako jarduketaren in situ egiaztatzea egingo zaien pertsona onuradunei aldez aurretik idazki bat bidaliko zaie, haren berri emateko EEEren aldetik. Jakinarazpena jasoko dutenek egiaztatze hori erraztu beharko dute.

Jakinarazpena bidali ondorengo bi (2) asteren barruan, EEEk pertsona onuradunari inbertsioen egiaztatzea egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin bada ikuskapena egin, EEErekin zerikusia ez duten arrazoiak tarteko, idazki bidez jakinaraziko zaio laguntzaren pertsona onuradunari hamabost (15) egun balioduneko epea izango duela beste hitzordu bat egiteko,

inbertsioen egiaztatzea egin ahal izateko. Hori egin ezean, EEEk dirulaguntzaren zenbatekoa erabat errebokatzeko espedientea abiaraziko du, 20/2023 legearen 40. artikuluan ezarritako itzulketa-prozedurarekin bat eginez.

Egiaztatzean hartutako informazioa eskaeran aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako dirulaguntzaren kopuruak txikiagoa izan behar duela, edo ez dagokiola dirulaguntzarik jasotzea ondorioztatzen bada, kasuan-kasuan, EEEk dirulaguntza partzialki edo erabat errebokatzeko espedientea egingo du, eta, hala badagokio, zati bat edo kopuru osoa itzultzeko eskatuko du, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

Hamahirugarrena. Laguntzen onuradunen betebeharrak.

Deialdi honetan parte hatzen duten onuradunek, nolanahi ere, betebehar hauek bete beharko dituzte:

1. DLOaren 14. eta 46. artikuluetan, DEOaren eta 20/2023 Dekretuaren 14., 27. eta 42. artikuluan xedatutakoak, bai eta aplikagarria suerta daitekeen estatuko nahiz Europako araudian xedatutakoak ere.
2. Dirulaguntza eman zaion helburu jakinerako erabiltzea.
3. KEB - Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, HKEE Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, EEEri eta baita tokiko, estatuko edo Europar Batasuneko beste edozein kontrol-erakunderi (adierazgarri gisa, eta ez modu mugatzailean, Europar Batasuna, Iruzurraren aurkako Europako Bulegoa (OLAF), Europako Kontu Epaitegia eta Europako Fiskaltza) eta gai honetan eskumena duten erakundeei ematea beren funtzioak gauzatzean laguntza-deialdi honen kontura jasotako laguntzei buruz eskatzen dioten informazio guztia.
4. EEEri, xede bererako dirulaguntza edo laguntzak, diru-sarrerak (adibidez energia-eraginkortasuneko ziurtagiriak - energia-aurrezpeneko ziurtagiriak...) edo baliabideak eskatu edo lortu izana jakinaraztea, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek emandakoak badira.
5. Jarduketak aplikatzekoak zaizkion erregelamendu eta araudiak betez egikaritzea, eta jarduketaren osagaiek organismo eskudunaren dagokion homologazioa izan beharko dute. Modu horretan, onuradunak onartzen du dirulaguntzaren xede den proiektua guztiz bat datorrela indarreko araudi aplikagarriarekin, bai teknikoarekin, bai hirigintzakoarekin, bai beste edozein izaerakorekin.
6. Egindako jarduketa eta jasotako laguntzaren aplikazioa egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak gordetzea, egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko dagozkien jarduketen xede izan daitezkeela kontuan hartuta, eta gutxienez hamar (10) urtean zehar laguntzaren emakidaren datatik zenbatzen hasita, 651/2014 Erregelamenduak xedatzen duenaren arabera.
7. Kontabilitate banandu edo bereizi bat izan beharko dute pertsona onuradunek laguntzako jarduketarekin zerikusia duten transakzio guztietarako.
8. 20/2023 Legearen 30.4 artikulua aplikatuz, jarduketa subentzionagarria ondasun inbentariagarriak erosi, eraiki, birgaitu eta hobetzea bada, subentzionatutako ondasunaren titularra izan beharko du pertsona onuradunak, eta dirulaguntza eman zitzaionean kontuan hartu zen xede jakin horretarako erabili beharko du, gutxienez bost (5) urtez laguntza eman zitzaion egunaz geroztik eta bi (2) urte gainerako

ondasunentzat, bi kasuetan ere epeak laguntza ematen den egunetik zenbatzen hasita.

Erregistro publiko batean inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan, eskrituran jaso beharko da zirkunstantzia hori, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta elementu horiek nahitaez inskribatu beharko dira dagokion erregistro publikoan.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa ez da eskagarria izango Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen eta Energia elektrikoko instalazioak garraiatzeko, banatzeko, merkaturatzeko eta hornitzeko jarduerak eta instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren sektore-erregulazioa betez elektrizitatea banatzen edo garraiatzen duen konpainiari laga behar zaizkion azpiegitura elektrikoetarako inbertsioetan.

Betebeharra ez da bete gabekotzat hartuko 20/2023 Legearen 30.5 artikuluan deskribatutako zirkunstantzietako bat gertatzen denean. Edozein kasutan ere, artikulu horretan aipatzen den EEEren baimena lortzeko, honako hau egin beharko du laguntzaren onuradunak:

a) EEEren aurrean egiaztatu, adierazi eta kreditatu, erosle berriak betetzen dituela laguntzaren onuradun izateko Oinarri hauetan aurreikusitako betekizun guztiak.

b) Salerosketaren kontratu-dokumentuan honako hauek adierazi beharko ditu espresuki:

   1. Ondasun hori Programa honen laguntzaren xede izan dela.

   2. Erosle berriak laguntzaren pertsona onuradunaren posizio juridikoa bereganatzen duela, gutxienez, laguntzaren pertsona onuraduna hartzaile-kondiziotik eratorritako betebeharren indarraldia amaitu arte.

   3. EEEri egindako salerosketaren berri eman beharko dio, gehienez hiru (3) hilabeteko epean formalizazioaz geroztik.

Laguntzaren pertsona onuradunak betetzen ez baditu besterentze horri dagozkion eskakizunak, jasotako laguntza itzuli beharko du, osorik edo haren zati bat, dagokionaren arabera.

9. Pertsona onuradunak konpromisoa hartzen du, EEEk eskatuta, jarduketa subentzionagarriaren emaitzen bilakaeraren berri emateko eta haiek hedatzea ahalbidetzeko, EEEk laguntza ordaindu eta hamar (10) urteko epean.

10. Dirulaguntzaren pertsona onuraduna enpresa bat denean, bere merkataritza-eragiketetan egin dituen gastu subentzionagarriek aplikagarria zaion sektore-araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordainduta egon beharko dute edo, bestela, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.

11. Onuradunak konpromisoa hartzen du 20/2023 Legearen V. tituluan xedatutakoaren araberako deslokalizazio-kasu batean ez erortzeko. Betiere jarduketa subentzionagarria edo pertsona onuradunaren izaera dela-eta enpresa-deslokalizazio baten kasuan bagaude, pertsona onuradunak nahitaez bete beharko ditu adierazitako 20/2023 Lege horrek 48.-51. artikuluetan deskribatutako betebeharrak eta ondorioak, jasotako laguntzaren itzulketa barne.

12. Dirulaguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektibo zein subjektiboren berri ematea EEEri, baita laguntzaren xedea ikuskatzeko eginkizunak betez eskatzen dion edozein informazioren berri ere.

13. Publizitatearen arloko obligazioei dagokienez, informatzeko eta komunikatzeko egiten diren neurri eta ekintza guztietan, pertsona onuradunak EEEren laguntzaren onuraduna dela aitortu behar du. Horretarako:

a) Paperean, webgune batean, app batean edo ikus-entzunezko euskarri batean egiten den ekintza orotan berariaz aipatuko da proiektuak dirulaguntza jaso duela Programa honen barruan. Egiten diren ekintzetako edozeinetan EEEren logotipoa jarri beharko da. Logotipoa EEEren webgunean egongo da eskuragarri, formatu bektorialean eta bere azken bertsio eguneratuenean.

b) EEEren eskura jarriko da diruz lagundutako proiektuaren ondoriozko informazioa, haren emaitzak hedatzeko asmoz, elkarrekin adostu ondoren.

Hamalaugarrena. Ez-betetzeak eta itzulketak.

Deialdi honetan ezarritako eskakizunak eta gainerako arau aplikagarriak edo, kasuan-kasuan, dirulaguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezean, eta ez-betetze espedientea ireki ondoren, dirulaguntzaren errebokazio totala edo partziala eragingo du horrek eta dirua itzuli egin beharko zaio EEEri, berandutze-interesekin batera, eta hori guztia 20/2023 Legearen III. tituluarekiko xedatutakoari jarraikiz, dagozkion lege-egintza eta zigorrak alde batera utzi gabe. Dirulaguntzei buruzko Legearen 37. artikuluan eta 20/2023 Legearen 36. artikuluan ezarritako balizkoen eta oinarri hauetan ezarritako gainerako kasuez gain, kobratzeko eskubidea galtzea edo laguntza osoa edo zati bat itzultzea xedatu ahal izango dute, egiaztatutako ez-betetzeak araudi horretan edo oinarri hauetan aurreikusitako kausetan subsumitu daitezkeenean eta dagokion prozedura izapidetu ondoren:

1. Fiskalizazio edo kontrol jardueren ondorioz laguntzari aplikagarri zaion araudia bete ez dela egiaztatzea.
2. Programa honek laguntzen duen jarduera bererako beste diru-laguntzarik edo laguntzarik lortuz gero, horren berri ez ematea, jarduerari esker lortutako eta jakinarazi ez den laguntzaren zenbatekoaren arabera.
3. Oinarri hauetan ezarritako publizitate-betebeharrak ez betetzea.

Onuradunak jasotako zenbatekoak zati batean edo osorik itzuli beharko ditu, eta dirulaguntzen arloan dagokion dirulaguntza ordaintzen denetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesa eskatuko zaio, edo zordunak itzulketa hori egiten duen datarainokoa, hori baino lehenagokoa bada.

Eta helburua erabat betetzera modu esanguratsuan hurbildu delako dirulaguntza partzialki itzuli behar denean, eta pertsona onuradunak oinarri hauei jarraikiz bere konpromisoak eta betebeharrak betetzeko jarduketa nabaria egiaztatzen badu, programa honetan aurreikusitako xede eta helburuen betetze-maila hartuko da kontuan, betiere proportzionaltasun-irizpideen pean.

EEEko Zuzendaritza Nagusiak du errebokatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta, hala dagokionean, dirulaguntza partzialki edo osorik itzularaztekoa.

Hamabosgarrena. Datuak babesteari buruzko informazio-klausula eskatzaileentzat.

Datuen babesari buruzko informazioa (Datuak babesteari buruzko EB 2016/679 Erregelamendua betetzeko)	
Tratamenduaren arduraduna	ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, 48011, Bilbo (Bizkaia) telefonoa: 94 403 56 00 Harremana DPO: dpd@eve.eus
Helburua	1. Zure dirulaguntza-eskaera aztertzea eta kudeatzea eta, kasuan-kasuan, laguntza ematearen ondorioz ezartzen den harremanaren egikaritzapena eta kontrola. 2. Estatistika-xedeekin tratatu ahal izango dira datuak.
Tratamendua eta kontserbazioa legitimatzea	1. Tratamendua ezinbestekoa da guztion intereserako edo tratamenduaren erantzuleari emandako botere publikoak gauzatzeko egindako zeregin bat betetzeko. 2. Informazioa gordetzea: eskaera aztertzeko epean eta aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan. Laguntza emanez gero, emateko espedientearen zati izango dira datuak eta gorde egingo dira aktibo gordetzen den bitartean eta, ondoren, aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan.
Lagapenen hartzaileak	Kontrol-arloko eta 20/2023 Legearen 15.9 artikuluan aurreikusitako alorrean eta kasuetan eskumena duten erakunde eta autoritate autonomiko, lokal eta estatalak, edo Europar Batasunekoak.
Pertsona interesdunen eskubideak	Pertsona interesdunek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, eramangarritasunerako eskubideak eta tratamendua mugatzeko edo datuen aurka egiteko beren eskubideak egikaritu ditzakete EEEri idazki bat bidaliz, “datuak babesteko eskubideak egikaritzea” adieraziz, eskubide horiek dirulaguntzen arloko araudian aurreikusitakoaren arabera egikaritu daitezkeen neurrian.
	Pertsona interesdunek Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari erreklamatzeko eskubidea dute www.avpd.eus
Pertsona onuradun orok konpromisoa hartzen du, bere laguntza-eskaeran adierazitako proiektuaren kudeaketan eta, kasuan-kasuan, ondorengo egikaritzapenean inplikatutako edozein pertsona fisiko/juridikoren edozein datu pertsonal EEEri eman aurretik, arestian adierazitakoari buruz informatuko duela dagokion pertsona fisikoa/juridikoa, eta aplikatzekoak izan daitezkeen beste edozein eskakizun bete EEEri datu pertsonak behar bezala lagatzeko. Ordezkapena gauzatzeko, pertsona ordezkaria bere ordezkatuaren datu pertsonaletan sartuko da eta haren datu pertsonalak tratatuko ditu erabateko konfidentzialtasunez eta bidezkoak diren segurtasun-neurriak aplikatuz, prozedura kudeatzeko soil-soilik eta beste edozertarako erabiltzeko aukera debekatuta. Hirugarrenei ere ez zaie jakinaraziko, ordezkatuaren esanbidezko baimena baldin badago salbu. Konpromiso horiek mugagabeak dira, eta beraz, ordezkapena amaiturik ere jarraitzen dute indarrean. Pertsona ordezkariak segurtasun-arrakalen bat detektatzen badu EEErentzako datuen komunikazio-kanaletan, EEEri jakinarazi beharko dio berehala.	

Hamaseigarrena. Administrazio-izaera, eskumeneko jurisdikzioa eta aplikatu beharreko beste xedapen batzuk.

1. EEEren ebazpenek izaera administratiboa dute, eta administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa da EEEk kudeatzen dituen dirulaguntzen jurisdikzio eskuduna..

   EEEk laguntza hauek emateko prozeduraren ebazpena eta suntsiarazpena dela-eta ematen dituen ebazpenek izaera administratiboa dute, eta, beraz, haien aurka dagokion errekurtso administratiboa jarri ahal izango da, baita administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo ere.

2. Irudien erabilera: Programa honetatik eratorritako laguntzen xede diren jarduketatik lortutako irudiak erabiltzeko eskubidea du EEEk.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

3. Akatsak baldin badaude edo informaziorik eta dokumentaziorik ez badago laguntza emateko kudeaketan laguntzaren onuradunaren aldetik, eta horrek zuzenean eragina badu EEEk eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko garaian, laguntzaren onuradunaren erantzukizun bakarra izango da. Horregatik, benetan egindako gastua handiagoa bada ere, laguntza emateko ebazpenean kontuan hartutakoa baino, hazkunde horrek ezein kasutan ere ezin izango du emakidaren zenbatekoa gorantz berrikustea ekarri.

4. Araudi aplikagarria: oinarri hauek aipatzen dituen dirulaguntzak honako arau hauetan xedatutakoaren mende daude:

   a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17 38/2003 Lege Orokorrean bildutako oinarrizko manuak.

   b) Azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarrizko manuak.

   c) 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

   d) 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

   e) Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko 651/2014 EB Erregelamendua, tratatuaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz laguntza-kategoria jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarritzat jotzen dituena, 651/2014 Erregelamendua eta 2022/2473 Erregelamendua aldatzen dituen 2023ko ekainaren 23ko 2023/1315 Erregelamenduak sartutako aldaketen ondoriozko azken idazkuntzaren arabera (EBAO L 167/1).

   f) Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen berme eta itzulketei buruzko araubide orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.

   g) 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.

   h) 91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa.

   i) 2023ko otsailaren 13ko agindua, Ogasuneko sailburuarena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

   j) Eraikinetako Instalazio Termikoen Araudia onartzen duen uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretua.

5. Aplikagarri izan litezkeen tokiko, autonomia-erkidegoko, estatuko eta/edo Europako gainerako araudi guztiak.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

I. ERANSKINA

Jarduketa subentzionagarriak, kostu subentzionagarriak eta laguntzen zenbatekoa

1. <u>Jarduketa subentzionagarriak</u>

a) **Autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazio berriak, energia berriztagarrien iturriak dituztenak, egiteko inbertsioak, lehendik dauden instalazioak handitzea, bai eta energia elektrikoa sortzeko instalazio berriei zein lehendik dauden instalazioei lotutako biltegiratze-instalazioak ere**

Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak honako hauek izango dira: autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazio berriak egiteko inbertsioak, energia-iturri berriztagarrien bidez; lehendik dauden instalazioak handitzeko inbertsioak, bai eta energia elektrikoa sortzeko instalazio berriei zein lehendik dauden instalazioei lotutako biltegiratze-instalazioak handitzeko inbertsioak ere, betiere Euskadin kokatuta badaude; horrez gain, honako aurreikuspen hau bete beharko da: urteko zenbaketan, laguntzaren xede den autokontsumo-instalazioari atxikitako kontsumitzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren batura instalazioak urtean sortutako energiaren % 80 edo gehiago izatea, «Dokumentazioa» izeneko II. eranskinean ezarritakoaren arabera. Murrizketa hori ez da aplikatuko instalazio bakartuetan.

Laguntzaren xede den mota honetako jarduketarako, edozein izaeratako kontsumitzaile guzti-guztiek EAEn izan beharko dute subentzionagarria den instalazio horri lotutako beren kontsumoa.

Programa honen xedeetarako, honako instalazio-tipologia hauek egongo dira barne hartuta:

1. Energia elektrikoa sortzeko baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuan ezarrita dauden autokontsumorako instalazioak.
2. 244/2019 Errege Dekretuan definituta dauden isolatutako instalazioak.
3. Energia elektriko berriztagarria sortzeko instalazioak, energia elektrikoa sortzeko baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuaren arabera autokontsumorako ez izan arren, sorkuntzari lotutako kontsumitzaileak identifikatuta dituztenak, kontsumitzaileen eta sortze-instalazioaren artean jabetza-lotura bat egon behar duelarik. Kontsumitzaileen jabeen arteko lotura horrek ehuneko 50etik gorako zuzeneko edo zeharkako partaidetzara iritsi beharko du. Hala ere, aurretik zehaztutako gutxieneko ehunekoaren baldintza ez zaie aplikatuko laguntza eskatzen duten pertsonei, baldin eta laugarren oinarriko 1. paragrafoko c) 2. puntuan ezarritako onuradun motarekin bat badator.
4. Elektrizitatea sortzeko instalazioak handitzea, 1., 2. eta 3. puntuetan adierazitako tipologiekin bat etorriz.
5. Era berean, sortutako energia elektrikoa metatzeko baterietan egindako inbertsioa ere diruz lagundu ahal izango da, baldin eta biltegiratze hori elektrizitatea sortzeko instalazio berriztagarri berri bati edo lehendik dagoen bati lotuta badago.

   Biltegiratze-instalazioak sorkuntza-instalazioaren zati izan beharko du, bateria instalazioaren barne-sarean kokatu beharko delarik.

Biltegiratze-instalaziorako diru-laguntza jaso dezakeen **gehieneko ratioa** instalatutako **4 kWh/kWp** edo **kW** da, instalazio-motaren arabera (fotovoltaikoa edo eolikoa den kontuan hartuz). Aipatutakoa baino edukiera handiagoko bateriak instalatzea baimentzen da, baina ez da diruz lagunduko ratio horretarako adierazitako balioa gainditzen duen biltegiratze-zatia.

Biltegiratzeko instalazioak gutxienez urteko energiaren % 75 xurgatu beharko du zuzenean konektatutako energia elektriko berriztagarria sortzeko instalaziotik, 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 41.1.bis artikuluaren arabera (2023ko ekainaren 23ko Batzordearen 2023/1315 (EB) Erregelamenduak aldatutakoa).

Berun-azidozko bateriekin biltegiratzeko instalazioak ez dira diruz lagunduko programa honen bidez.

Dirulaguntza jasotzen duen instalazioak sortutako energia elektrikoaren monitorizazio-sistema bat eduki beharko dute instalazioek, salbu eta isolatuta badaude. Informazioa bera gailu mugikorren edo web aplikazioen bidez eskuratzeko aukera bermatu beharko da. Sistema horren funtzionalitateak honako hauek izango dira:

1. Sistema horrek, gutxienez, instalazioak ekoitzitako energia eta dagokion energia-kontsumoa erakutsi beharko ditu, eta eguneko, hileko eta urteko informazioa eman beharko du. Sorkuntza kolektiboko instalazioen kasuan, sortutako energia bakarrik erakutsi beharko da.
2. Osagarri gisa, sistemak datu gehigarriak erakutsi ahal izango ditu, hala nola saihestutako CO2 emisioak eta instalazioak sortutako energia- eta ekonomia-aurrezpenak.

b) **Kontsumo termikoak energia berriztagarrien bidez elektrifikatzeko instalazioak egiteko inbertsioak**

EAEko energia berriztagarrien instalazioetan egiten diren inbertsioek jaso ahal izango dute diru-laguntza, baldin eta klimatizazioko eta/edo ur bero sanitarioko (pertsonen ongizate termikorako) bero-ponpak barne hartzen badituzte. Instalazio horiek teknologia hauetan oinarritu beharko dute: teknologia aerotermikoa, zundaketa bertikaleko geotermikoa eta hidrotermikoa.

Teknologia aerotermikoa, zundaketa bertikaldun geotermikoa eta ura soilik erabiliz sistema hidronikoetan oinarritutako teknologia hidrotermikoa erabiltzen direneko kasuak subentzionagarriak izango dira pertsona onuradun mota ororentzat.

Gainera, aurrerago zehaztuko diren kasu batzuetan soilik jasoko dute diru-laguntza aire-aire bero-ponpen bidezko klimatizazio-sistemek, rooftop sistemak barne. Sistema mota hori subentzionagarria izan ahal izateko irizpide eta baldintza hauek eduki beharko dira kontuan:

1. Pertsonen ongizate termikorako klimatizazioa ematen duten zuzeneko espantsio bidezko aire-aire bero-ponpetan oinarritutako instalazio finkoen (ez-mugikorrak) kasuak hartzen dira kontuan.
2. Programa honen ondorioetarako, rooftop (aire-aire) sistematzat honako hau hartuko da: hedapen zuzeneko bero-ponpa autonomoa, estalkian instalatua, unitate bakar batean ekoizpen termikoko, aireztapeneko, iragazpeneko eta aire-tratamenduko elementuak biltzen dituena, eta aire girotuaren zuzeneko bulkadaren bidez berokuntza eta/edo hozketa ematen diena hodi-sare baten bidez girotutako lokalei,

banaketa termikoko barne-zirkuitu hidraulikorik erabili gabe. Ez dira halakotzat hartuko multisplit, split edo VRF deritzen sistemak.

3. Klimatizazio-sistema mota horrek diru-laguntza jasoko du soilik klimatizazio-instalazioa kokatuta dagoen helbidearen CUPS elektrikoa elektrizitatea sortzeko instalazio berri edo lehendik dagoen batekin zuzenean edo zeharka lotuta dagoenean.

4. Aire-aire bero-ponpen bidezko klimatizazio-sistemek, rooftop sistemek izan ezik, honako onuradun eta jardun-eremu hauetan soilik jaso ahal izango dute diru-laguntza:

   A) Jarduera ekonomikorik egiten ez duten onuradunak, eta jarduketa subentzionagarria bizitegi-erabilerarako baino ez diren etxebizitzetan egiten dutenak.

   B) Denda txikiak. Programa honen ondorioetarako, hauek hartuko dira denda txiki edo merkataritza txikiko establezimendutzat: jarduera ekonomikoa gauzatzen duten pertsona onuradunek jarduten duten establezimenduak, enpresa txikitzat hartzen direnak eta jarduera nagusia 2025eko EJSNaren 47. dibisioan (txikizkako merkataritza) sailkatua dutenak, baldin eta jarduera subentzionagarria establezimendu horietan soilik egiten bada.

5. Rooftop aire-aire bidezko klimatizazio-sistemek jarduera-sektore guztietan izango dira subentzionagarriak, eta, gainera, laugarren oinarrian adierazitako onuradun guztientzat.

Diru-laguntzaren xede diren instalazio guztietarako, haien teknologia edozein dela ere, urtaroaren araberako batez besteko errendimendua **(SPF) 2,5etik gorakoa** izatea eskatzen da.

Egindako instalazioek, bidezko bada, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuak onartutako Eraikinetako instalazio termikoen erregelamenduan (EITE) ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, baita aplikatzekoa zaien beste edozein araudi ere. Bero-ponpek 2016ko azaroaren 30eko Batzordearen 2016/2281 Erregelamenduan ezarritako ekodiseinu-errekerimenduak bete beharko dituzte, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/125/EB Zuzentarauak aplikatzen dituena. Zuzentarau horren arabera esparru bat ezartzen da energiarekin zerikusia duten produktuei aplikatzekoak diren diseinu ekologikoko betekizunak ezartzeko, airea berotzeko produktuei, hozte-prozesuei, tenperatura altuko prozesuak hozteko makinei eta bentilokonbektoreei aplikatzekoak diren diseinu ekologikoko betekizunei dagokienez.

Akuiferoetan eragiten duten geotermia- eta hidrotermia-jarduketetarako, urriaren 23ko 2000/60/EB Zuzentaraua betetzen dela bermatuko da, ur-politiken eremuan jarduteko Europar Batasunaren esparru bat ezartzen duena akuiferoei kalte esanguratsurik eragiten ez zaiela ziurtatzeko, uraren kalitatea babestu eta estres hidrikoa saihestearren.

Instalazio geotermiko guztiek zundaketa bertikalak egitea barne hartu beharko dute energia termikoaren trukerako. Zundaketak sakonera egokian egin beharko dira, sistemaren egonkortasun termikoa bermatzeko, eta aplikagarria den araudi teknikoa eta indarrean dagoen ingurumenekoa bete beharko dituzte, energia-truke eraginkorra eta segurua ziurtatuz.

Eraikuntza berriko eraikinetan egiten diren jarduketek (Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko 38/1999 Legean identifikatuak) energia berriztagarrien erabilera esklusiboa izango dute baldintza gehigarri gisa. Hortaz, energia-iturri berriztagarriak osorik

erabiltzen dituzten instalazioek soilik jaso ahal izango dute dirulaguntza, bestelako energia-iturri ez-berriztagarriekin inolako hibridaziorik izan gabe.

Programa honetan **ez dira subentzionagarriak izango** honako instalazio mota hauek:

1. Eskatutako gutxieneko errendimenduak lortzen ez dituzten bero-ponpak, ez eta ustez errendimendu horiek betez zalantzarik gabeko errendimendu ziurtaturik ez dutenak.
2. Hezetasun-kengailuen funtzioa betetzen duten bero-ponpak.
3. Produktuak hozteko edo izozteko hozte-sistemak, hotz-ganberak eta kontserbazio-ganberak, itsas, lurreko edo aireko garraioarekin lotutako hozte-sistemak, zerbitzari-aretoak, datuak prozesatzeko zentroak (data centers) eta hotza sortzea beste helbururik ez duten antzeko beste erabilera batzuk klimatizatzeko eta hozteko erabiltzen diren ekipoak.
4. Ura hozteko makinak (chillers) eta hozteko modua bakarrik duen beste edozein klimatizazio-ekipo.
5. Hozteko edo industria-instalazio gisa edo Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua (EITE) ez den beste edozein erregelamendu-araubideren pean legeztatzen diren ekipoak eta instalazioak, bai eta erregelamendu horren arabera legeztatzeko beharrik ez duten dagokion legeztatzerik ez duten jarduketak ere.
6. Lurrazpiarekin elkartruke energetikoa atzemateko zundaketa egin gabeko ekipo geotermikoetako jarduketak.
7. Etxebizitzetan (erabilera pribatukoak nahiz komunitatearenak) dauden igerilekuetako ura berotzea helburu bakarra duten bero-ponpak.

2. <u>Kostu subentzionagarriak</u>

a) **Energia berriztagarrien iturriekin autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazio berriak egiteko, lehendik dauden instalazioak handitzeko eta energia elektrikoa sortzeko instalazio berriei nahiz lehendik dauden instalazioei lotutako biltegiratze-instalazioetarako inbertsioetarako kostu subentzionagarriak.**

Jarraian zerrendatzen direnak hartzen dira kostu subentzionagarritzat:

1. Laguntzaren xede diren jarduera-tipologiekin zerikusia duten ekipamendu eta materialetan eginiko inbertsioak, biltegiratze-sistemei dagokiena barne, hala dagokionean.
2. Laguntzaren xede diren jarduketa tipologiekin lotutako obrak eta/edo instalazioak egikaritzeko kostuak.
3. Ekipamendu elektromekanikoak, kontrolekoak eta osagarriak, laguntzaren xede den jarduketarekin lotuta daudenean.
4. Goi, Erdi eta Behe Tentsioko sistema elektriko orokorra, transformadoreak, ebakuazio-linea eta garraio- edo banaketa-sare elektrikoarekiko lotunerainoko sistema eta azpiegitura elektriko gehigarriak, laguntzaren xede den jarduketa tipologiaren arabera beharrezkoak direnean. Bidezko bada, dagozkion babesak eta ekipamenduak barnean hartuko dira, Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoari (BTEE) eta haren Jarraibide tekniko osagarriei edo Goi Tentsioko Instalazio Elektrikoen Erregelamenduaren (GTIE) eta haren Jarraibide tekniko osagarriei jarraikiz.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

5. Laguntzaren xede den instalazioak hornitutako instalazio kontsumitzaileen energia elektrikoaren sorkuntza, biltegiratzea eta eskaria monitorizatzeko sistemak, kudeaketa eta ekoizpena optimizatzen lagunduko dutenak. Ekipo horiek laguntzaren onuradunarenak izan beharko dute.

6. Obra zibila, laguntzaren xede diren jarduketekin zuzenean lotuta dagoenean eta proiektua behar bezala gauzatzeko beharrezkoa denean; adibidez, diru-laguntzaren xede diren instalazioak hartuko dituzten estalkiak zati batean edo osorik sendotzeko edo berritzeko kasuak. Era berean, obra zibil subentzionagarri gisa hartzen dira honako partida hauek: elektrizitatea sortzeko eta/edo biltegiratzeko instalazioa gauzatzeko eta behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren eraikinak, hondeaketak, zangak eta kanalizazioak eta sorkuntza-instalazioarekin lotutako hodiak, energia elektrikoa integratzeko eta energia-eskaera kudeatzeko sistemak, igeltserotza-laguntzak, behar diren instalazio osagarriak, instalazioaren barne-zortasunerako bideak, instalaziorako sarbideak egokitzea, kontrol-eraikinak, muntaketa-plataformak, aldi baterako instalazioak, zaharberritze-lanak eta obren ondorengo ingurumen-neurri zuzentzaileak. Kostu hautagarritzat hartu ahal izateko, obrek honako baldintza hau bete beharko dute: sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinen gutxienez % 70 (LER 17 05 04 kodea duten hondakinak alde batera utzita), beste material batzuk balorizatzeko, birziklatzeko eta berrerabiltzeko prestatzea, beste material batzuk ordezteko hondakinak erabiliz gauzatutako betetze-eragiketak barne. Era berean, eraispenen bat dakarten diru-laguntzen xede diren proiektuetan, gaikako eraispena barne hartuko da.

7. Laguntzako jarduketa tipologiekin lotutako proiektu edo memoria teknikoen idazkuntzaren kostuak.

8. Zuzendaritza fakultatiboaren kostuak, laguntzaren xede diren jarduera-tipologiekin lotuak.

9. Obraren eta muntaketaren segurtasuna eta osasuna koordinatzeko kostuak, laguntzaren xede diren jarduketen tipologiekin zerikusia dutenak.

10. Eguzki-instalazio fotovoltaikoen arloan diru-laguntza jaso duten sortze-proiektuetan barne hartutako estalkietan amiantoa kentzea.

11. Diru-laguntzaren xede diren jardueretatik zuzenean eratortzen direlako beharrezkoak diren hondakinen kudeaketari lotutako kostuak.

12. Eguzki-instalazio fotovoltaikoak aparkalekuen estalki gisa soilik erabiltzen diren markesinen gainean badaude, markesinen egituren kostua izango da subentzionagarria.

13. Behar bezala justifikatutako beste partida batzuk (lagungarriak edo ez) eta kostu ez-subentzionagarritzat jasotakoez bestelakoak.

Ez dira subentzionagarritzat hartuko kontzeptu hauetan sartzen diren kostuak:

1. Gastu propioak, langileei lotutako gastuak, funtzionamendukoak edo gastu orokorrak izan.

2. Eraikuntzaren Kode Teknikoak (1. puntua) ezartzen dituen eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioak. HE5 dokumentuaren (aurrerantzean, EKT) aplikazio-eremua, energia aurrezteko oinarrizko eskakizunak edo eraikuntzaren kalitatearen beste edozein helburu betetzeko. Laguntza emango da, ordea, horrelako instalazioak handitzen badira, EKTk ezarritakoa gaindituz.

3. Ekipo autonomo fotovoltaikoak, argiteria publikoari lotuak, edo pribatuak, hala nola farola fotovoltaikoak.
4. Bide-eremuari lotutako ekipo autonomo fotovoltaikoak, hala nola sistema fotovoltaikoen bidez gauzatzen diren seinaleztapen-sistemak.
5. Ekipo autonomo fotovoltaikoak, hala nola garraioaren arloan ezarritakoak (adibidez, furgonetak, karabanak, autokarabanak, …).
6. Ekipo autonomo fotovoltaiko garraiagarriak, hala nola aldi baterako iraunaldi ez behin betikoa behar duten egoeretan inplementatutakoak (ez dira instalazio finkoak).
7. Oro har, edozein ekipo fotovoltaiko eramangarri edo plug and play (entxufagarriak) deritzenak, hala nola ekitaldietan, kanpinetan, balkoietan eta abarretan erabiltzen direnak.
8. Ingurumen-inpaktuko azterlanak eta proiektu teknikoak ikus-onesteko kostuak.
9. Laguntzaren eskatzaileak proiektua garatzeko egiten duen beste edozein sustapen-gastu.
10. Administrazio-baimenei, lizentziei, baimenei, abal eta/edo fidantzen kostuei, isunei, tasei edo zergei dagozkien zenbatekoak.
11. Aurreko atalean bilduta ez dauden gestio, kontratazio, kontsulta edo izapide administratiboekin lotutako gainerako gastu guztiak, baimenak edo lizentziak lortzeko beharrezkoak direnak.
12. Inbertsio-proiekturako zein ebakuazio-azpiegituretarako erabilitako lurrak erostearen edo alokatzearen kostua.
13. Erabilitako edo bigarren eskuko ekipoak.
14. Laguntza eskatzen duenak izenpetutako aseguruak.
15. Zaintzaren eta segurtasunaren kostuak obra egiten den bitartean, martxan jartzen den egunera arte.
16. Energiaren ebakuazioa bideragarri egiteko esklusiboez bestelako linea elektrikoen egokitzapenen, birmoldaketen edo egikaritzapenen kostuak. Hortaz, subentzionagarritzat hartuko dira, soil-soilik, sorkuntza-instalazio berria —edo energia berriztagarriak sarean integratzeko sistema berriak— instalazio horien lotunearekin eta garraio- edo banaketa-linearekin lotzeko behar diren lineak, sistema elektrikoaren neurketa-puntuen Erregelamendu bateratua onartzen duen abuztuaren 24ko 1110/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.
17. Diruz lagundutako instalaziora arte dauden errepide publiko eta bideetarako sarbideak egokitzeko kostuak, hala badagokio.
18. Finantza-kostuak.

Tributuak kostu subentzionagarritzat hartzeari dagokionez, 20/2023 Legearen 30.8 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

b) **Kontsumo termikoak energia berriztagarrien bidez elektrifikatzeko instalazioak egiteko kostu subentzionagarriak.**

Zalantzarik gabe subentzionatutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak, jarduketa subentzionagarria egiteko behar-beharrezkoak direnak eta programak lortu nahi dituen

helburuak betetzeko ezinbestekoak direnak hartzen dira gastu subentzionagarritzat. Bereziki kostu subentzionagarri hauek barne hartzen dira:

1. Laguntzaren xede diren jarduera-tipologiekin zerikusia duten ekipamendu eta materialetan eginiko inbertsioak, metatze- eta biltegiratze-sistemei dagozkienak barne, hala dagokionean.
2. Laguntzaren xede diren jarduketa tipologiekin lotutako obrak eta/edo instalazioak egikaritzeko kostuak.
3. Ekipamendu elektromekanikoak, hidraulikoak, kontrolekoak eta osagarriak, laguntzaren xede den jarduketarekin lotuta daudenean.
4. Laguntzen xede den instalaziorako aurreikusitako energiaren sorkuntzaren eta biltegiratzearen kudeaketa-, kontrol- eta monitorizazio-sistemak, kudeaketa eta ekoizpena optimizatzeko. Ekipo horiek laguntzaren onuradunarenak izan beharko dute.
5. Instalazio geotermikoetarako esplorazio-zundaketak eta Erantzun Termikoko Testen entseguak.
6. Obra zibila, laguntzaren xede diren jarduketekin zuzenean lotuta dagoenean eta proiektu termikoa behar bezala gauzatzeko beharrezkoa den obra, hala nola, laguntzen xede den sortze-instalazioarekin lotutako hondeaketak, zangak, kanalizazioak eta hodiak. Kostu hautagarritzat hartu ahal izateko, obrek honako baldintza hau bete beharko dute: sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinen gutxienez % 70 (LER 17 05 04 kodea duten hondakinak alde batera utzita), beste material batzuk balorizatzeko, birziklatzeko eta berrerabiltzeko prestatzea, beste material batzuk ordezteko hondakinak erabiliz gauzatutako betetze-eragiketak barne. Era berean, eraispenen bat dakarten diru-laguntzen xede diren proiektuetan, gaikako eraispena barne hartuko da.
7. Energia berriztagarriak bakarrik erabiltzen dituzten sorkuntza termikoko instalazioei lotutako klimatizazioaren barne-banaketa, energia-iturri fosilekin hibridatu gabe, zirkuitu hidraulikoak barne, eta tenperatura baxuko instalazioekin lan egiteko berariaz diseinatutako emisio termikoko sistemak soilik, hala nola lurzoru erradiatzailea, sabai erradiatzailea, fan coil-ak eta tenperatura baxuko erradiadoreak.
8. Kokalekuan dauden instalazioak desegiteak dakartzan kostuak.
9. Laguntzako jarduketa tipologiekin lotutako proiektu edo memoria teknikoen idazkuntzaren kostuak.
10. Zuzendaritza fakultatiboaren kostuak, laguntzaren xede diren jarduera-tipologiekin lotuak.
11. Obraren eta muntaketaren segurtasuna eta osasuna koordinatzeko kostuak, laguntzaren xede diren jarduketen tipologiekin zerikusia dutenak.
12. Diru-laguntzaren xede diren jardueretatik zuzenean eratortzen direlako beharrezkoak diren hondakinen kudeaketari lotutako kostuak.
13. Jarduketa tipologia bakoitzaren espezifikoak izanik, beharrezko gisa ongi justifikatu diren beste partida batzuk, (lagungarriak izan edo ez), kostu ez-subentzionagarri gisa bildutakoez apartekoak.

Ez dira subentzionagarritzat hartuko kontzeptu hauetan sartzen diren kostuak:

1. Gastu propioak, langileei lotutako gastuak, funtzionamendukoak edo gastu orokorrak izan.
2. Edozein jarduera-sektoretan erabiltzen diren hozte- eta/edo berokuntza-ekipo eramangarriak (etxekoak, zerbitzuetakoak...).
3. UBSa bakarrik ekoizten duten ekipoak, bero-ponparen teknologian oinarritzen ez direnak (adibidez, termo elektrikoak).
4. Hotza soilik ekoizteko edozein ekipo.
5. Ingurumen-inpaktuko azterlanak eta proiektu teknikoak ikus-onesteko kostuak.
6. Laguntzaren eskatzaileak proiektua garatzeko egiten duen beste edozein sustapen-gastu.
7. Administrazio-baimenei, lizentziei, baimenei, abal eta/edo fidantzen kostuei, isunei, tasei edo zergei dagozkien zenbatekoak.
8. Aurreko atalean bilduta ez dauden gestio, kontratazio, kontsulta edo izapide administratiboekin lotutako gainerako gastu guztiak, baimenak edo lizentziak lortzeko beharrezkoak direnak.
9. Inbertsio-proiekturako zein ebakuazio-azpiegituretarako erabilitako lurrak erostearen edo alokatzearen kostua.
10. Erabilitako edo bigarren eskuko ekipoak.
11. Lehendik dauden eta zundaketa bertikal berriak egin beharrik eskatzen ez duten bero-ponpa geotermikoak ordeztea.
12. Laguntza eskatzen duenak izenpetutako aseguruak.
13. Zaintzaren eta segurtasunaren kostuak obra egiten den bitartean, martxan jartzen den egunera arte.
14. Diru-laguntzaren xede den instalaziora bitarte dauden errepide publiko eta bideetarako sarbideak egokitzeko kostuak.
15. Finantza-kostuak.
16. Tenperatura baxuko instalazioekin lan egiteko berariaz diseinatu ez diren banaketa eta emisio termikoko sistemak. Bereziki, ez dira subentzionagarriak izango beren diseinu-baldintza izendatuetan 55 ºC-tik gorako bulkada-tenperaturekin funtzionatzeko diseinatutako jaulkitzaileek.

Tributuak kostu subentzionagarritzat hartzeari dagokionez, 20/2023 Legearen 30.8 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

3. <u>Laguntzaren zenbatekoa</u>

a) **Autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko energia berriztagarrien iturriak dituzten instalazio berriak egiteko laguntzen zenbatekoa, lehendik dauden instalazioak handitzeko, bai eta energia elektrikoa sortzeko instalazio berriei zein lehendik dauden instalazioei lotutako biltegiratze-instalazioetarako ere**

Laguntza kalkulatzeko helburuarekin, sorkuntza-potentzia honela lortuko da: instalazio hori konfiguratzen duten modulu fotovoltaiko berrien gehieneko potentzia unitarioak batuta (puntako potentzia gisa ezagutzen dena), kondizio estandarretan neurtuak dagokion UNE arauaren arabera. Eolikoen kasuan, laguntza kalkulatzeko helburuarekin,

instalatutako sorgailu berrien potentzia nominal unitarioen batura eginda lortuko da sorkuntza-potentzia.

1. Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen **jarduera ekonomikorik egiten ez duten** onuradunentzako laguntzaren kalkulua, 3. puntu honetako a) ataleko 3. azpiatalean aipatutakoak izan ezik. Laguntzaren zenbatekoa.

Eman beharreko laguntza honela kalkulatuko da: energia sortzeko instalazioari ematen zaion laguntza gehi, hala badagokio, energia biltegiratzeko instalazioari ematen zaiona.

Energia **sortzeko** instalazioetarako laguntzak banakako zenbateko finko edo «modulu» gisa emango dira, eta gehienez ere kostu subentzionagarri osoa estaliko dute.

Sorkuntzako laguntza = Sorkuntza-modulua x Ps

Non Ps instalatutako sorkuntza-instalazioaren potentzia baita, puntako kilowattetan (kWp), instalazio fotovoltaikoen kasuan, eta kilowattetan (kW) instalazio eolikoen kasuan.

Sortze-laguntzak ezin izango du gainditu egindako jarduketaren kostu subentzionagarria edo, hala badagokio, Programa honetan ezarritako mugetatik eratorritako murrizketak aplikatu ondoren ateratzen den kostu subentzionagarria, hau da, kostu hautagarria.

Nolanahi ere, ateratzen den laguntzaren gehieneko muga kostu hautagarriaren % 65 izango da.

Jarduketa bakoitzari eman beharreko laguntza definitzen duten sorkuntza-moduluak honako hauek dira:

Instalazioa potentzia tarteen arabera	Laguntza modulu indibiduala (€/kWp edo kW)	Laguntza modulu kolektiboa (€/kWp edo kW)
instalazio fotovoltaikoa P ≤ 10 kWp	600	710
instalazio fotovoltaikoa P > 10 kWp eta P≤ 100 kWp	450	535
instalazio fotovoltaikoa P > 100 kWp eta P≤ 1.000 kWp	350	420
instalazio fotovoltaikoa P > 1.000 kWp	300	355
Sorkuntza-instalazio eolikoa P ≤ 20 kW	2.900	3.350
Sorkuntza-instalazio eolikoa P > 20 kW eta P ≤ 500 kW	1.950	2.250
Sorkuntza-instalazio eolikoa P > 500 kW	650	775

Modulu horiek handitu egingo dira eguzki-instalazio fotovoltaikoa ezarriko den **estalkiaren/estalkien azalera osoa** berritzen baldin bada (amiantoa kentzea, egitura aldatzea...); baita aparkalekuen estalki gisa balioko duten markesina fotovoltaikoak instalatzen direnean ere.

Modulu gehigarri horiek kontuan hartzeko, beharrezkoa da sorkuntza-potentzia osoaren % 80, gutxienez, gainazal **osoa** berritu deneko **estalkiaren/estalkien** gainean kokatzea (amiantoa kentzea, egitura-aldaketa...). Aparkalekuetarako markesinen kasuan,

sorkuntzako guztizko potentziaren % 80 markesina fotovoltaikoen gainean instalatzeko eskakizuna ere bete behar da.

Jarduketa osagarriak	Sorkuntza-modulu gehigarria (€/kWp) (kasuaren arabera)
Eguzki-instalazio fotovoltaikoa jarriko den guneko estalkiaren/estalkien azalera osoa berritzea (amiantoa kentzea, egitura aldatzea...)	P ≤ 10 kWp: 200 €/kWp 10 kWp < P ≤ 100 kWp: 160 €/kWp 100 kWp < P ≤ 1.000 kWp: 110 €/kWp P > 1.000 kWp: 100 €/kWp
Aparkalekuetarako estalki gisa balio duten eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako markesinak jartzea	P ≤ 10 kWp: 400 €/kWp 10 kWp < P ≤ 100 kWp: 350 €/kWp 100 kWp < P ≤ 1.000 kWp: 300 €/kWp P > 1.000 kWp: 250 €/kWp

Energia **biltegiratzeko** laguntzak banakako zenbateko finko edo «modulu» gisa emango dira, eta gehienez ere kostu subentzionagarri osoa estaliko dute.

Biltegiratze-laguntza = Biltegiratze-modulua x Kap

Kap izanik: benetan instalatutako biltegiratzeko instalazioaren kapazitate **nominala**, orduko kilowattetan (kWh).

Biltegiratze-laguntzak ezin izango du gainditu egindako jarduketaren kostu subentzionagarria edo, hala badagokio, Programa honetan ezarritako mugetatik eratorritako murrizketak aplikatu ondoren ateratzen den kostu subentzionagarria, hau da, kostu hautagarria.

Nolanahi ere, ateratzen den laguntzaren gehieneko muga kostu hautagarriaren % 65 izango da.

Jarduketa bakoitzari eman beharreko laguntza definitzen duten biltegiratze-moduluak honako hauek dira:

Instalazioa gaitasun tarteen arabera	Laguntza-modulua (€/kWh)
Biltegiratze-instalazioa Kap ≤ 10 kWh	455
Biltegiratze-instalazioa Kap > 10 kWh eta Kap ≤ 100 kWh	325
Biltegiratze-instalazioa Kap > 100 kWh eta Kap ≤ 5.000 kWh	227
Biltegiratze-instalazioa Kap ≤ 5.000 kWh	130

Diruz lagundu daitekeen gehieneko ratioa 4 kWh/kWp fotovoltaiko edo kW eolikoa izango da, bai biltegiratzeko instalazio berrietarako, bai lehendik dauden instalazioen handitzeetarako. Baimenduta dago adierazitako gaitasun handiagoko biltegiratze-instalazioa, ratio hori gainditzen duen biltegiratze-zatirako dirulaguntzarik gabe.

Ratio hori kalkulatzeko, kontuan hartuko dira biltegiratze-ahalmen izendatu totala (berria eta/edo lehendik dagoena, kWh-tan) eta sorkuntza-potentzia totala (berria eta/edo lehendik dagoena, kWp fotovoltaikoan edo kW eolikoan).

2. Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen **jarduera ekonomikoa egiten duten** onuradunentzako laguntzaren kalkulua

Eman beharreko laguntza honela kalkulatuko da: energia sortzeko instalazioari ematen zaion laguntza gehi, hala badagokio, energia biltegiratzeko instalazioari ematen zaiona.

Sortze-instalaziorako laguntzak honela kalkulatuko dira: gutxieneko kostua (hau da, kalkulatutako kostu hautagarriaren balioaren eta sortze-kostu subentzionagarri maximoaren balioaren artean hautatu beharreko baliorik txikiena) bider potentziaren eta enpresaren tamainaren arabera ezarritako laguntzaren ehunekoa.

Ildo horretan, sorreran kalkulatutako kostu hautagarria 2. puntuan definitutako kostu subentzionagarri guztien baturaren emaitza da. I. eranskineko a) idatz-zatian, elektrizitatea sortzeko instalazioari dagozkion kostu subentzionagarriak, Programa honetan ezarritako mugetatik eratorritako murrizketak aplikatu ondoren.

Sorkuntza-laguntza = Csmin x enpresaren tamainaren %-a, potentzia-tartearen arabera

Diruz lagundu daitekeen gehieneko kostua = Diruz lagundu daitekeen gehieneko kostuaren modulua. x Ps

Non:

Csmin kostu hautagarriaren eta kostu subentzionagarri maximoaren arteko txikiena den; eta, Ps instalatutako sorkuntza-instalazioaren potentzia baita, puntako kilowattetan (kWp), instalazio fotovoltaikoen kasuan, eta kilowattetan (kW) instalazio eolikoen kasuan.

Gehieneko kostu-modulu subentzionagarri batzuk ezarri dira sorkuntza-potentziaren arabera. Gehieneko kostu subentzionagarria eta gehieneko kostu subentzionagarriaren gainean edo, bidezkoa bada, kalkulatutako kostu hautagarriaren gainean enpresaren tamainaren arabera aplikatu beharreko laguntzaren portzentajea definitzen duten moduluak honako hauek dira:

Instalazioa potentzia tarteen arabera	Gehieneko kostu subentzionagarriaren modulua (€/kWp edo kW)	Laguntza enpresa handia (%)	Enpresa ertainetarako laguntza (%)	Enpresa txikietarako laguntza (%)
Sorkuntza-instalazio fotovoltaikoa P ≤ 10 kW	1.188	% 25	% 30	% 45
Sorkuntza-instalazio fotovoltaikoa P > 10 kWp y P≤ 100 kWp	910	% 25	% 30	% 45
Sorkuntza-instalazio fotovoltaikoa P > 100 kWp y P≤ 1.000 kWp	749	% 25	% 30	% 35
Sorkuntza fotovoltaikoa P > 1.000 kWp	460	% 25	% 30	% 35
Sorkuntza-instalazio eolikoa P ≤ 20 kW	4.723	% 30	% 40	% 50
Sorkuntza-instalazio eolikoa P > 20 kW eta P ≤ 500 kW	3.072	% 30	% 40	% 50
Sorkuntza-instalazio eolikoa P > 500 kW	1.070	% 30	% 40	% 50

Modulu horiek handitu egingo dira eguzki-instalazio fotovoltaikoa ezarriko den **estalkiaren/estalkien azalera osoa** berritzen baldin bada (amiantoa kentzea, egitura

aldatzea...); baita aparkalekuen estalki gisa balioko duten markesina fotovoltaikoak instalatzen direnean ere.

Modulu gehigarri horiek kontuan hartzeko, beharrezkoa da sorkuntza-potentzia osoaren % 80, gutxienez, gainazal **osoa** berritu deneko **estalkiaren/estalkien** gainean kokatzea (amiantoa kentzea, egitura-aldaketa...). Aparkalekuetarako markesinen kasuan, sorkuntzako guztizko potentziaren % 80 markesina fotovoltaikoen gainean instalatzeko eskakizuna ere bete behar da.

Sorkuntza-jarduketa osagarriak	Gehieneko kostu subentzionagarri osagarria (€/kW)
Eguzki-instalazio fotovoltaikoa jarriko den guneko estalkiaren/estalkien azalera osoa berritzea (amiantoa kentzea, egitura aldatzea...)	P ≤ 10 kWp: 700 €/kWp 10 kWp < P ≤ 100 kWp: 660 €/kW 100 kWp < P ≤ 1.000 kWp: 450 €/kWp P > 1.000 kWp: 400 €/kWp
Aparkalekuetarako estalki gisa balio duten eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako markesinak jartzea	P ≤ 10 kWp: 500 €/kWp 10 kWp < P ≤ 100 kW: 400 €/kWp 100 kWp < P ≤ 1.000 kWp: 300 €/kWp P > 1.000 kWp: 250 €/kWp

Biltegiratze-instalaziorako laguntzak honela kalkulatuko dira: gutxieneko kostua (hau da, kalkulatutako kostu hautagarriaren balioaren eta biltegiratze-kostu subentzionagarri maximoaren balioaren artean hautatu beharreko baliorik txikiena) bider biltegiratze-ahalmenaren eta enpresaren tamainaren arabera ezarritako laguntzaren ehunekoa.

Ildo horretan, sorreran kalkulatutako biltegiratze-kostu hautagarria 2. puntuan definitutako kostu subentzionagarri guztien baturaren emaitza da. I. eranskineko a) idatz-zatian, elektrizitatea biltzeko instalazioari dagozkion kostu subentzionagarriak, Programa honetan ezarritako mugetatik eratorritako murrizketak aplikatu ondoren.

Biltegiratze-laguntza = Csmin x enpresaren tamainaren %-a, biltegiratze-tartearen arabera

Gehieneko kostu subentzionagarria = Laguntza-modulua x Cap

Non:

Csmin kostu hautagarriaren eta kostu subentzionagarri maximoaren arteko txikiena den; eta,

Kap izanik: benetan instalatutako biltegiratzeko instalazioaren kapazitate nominala, orduko kilowattetan (kWh).

Gehieneko kostu subentzionagarriko modulu batzuk ezartzen dira biltegiratze-potentziaren arabera. Gehieneko kostu subentzionagarria eta gehieneko kostu subentzionagarriaren gainean edo, bidezkoa bada, kalkulatutako kostu hautagarriaren gainean enpresaren tamainaren arabera aplikatu beharreko laguntzaren portzentajea definitzen duten moduluak honako hauek dira:

Instalazioa gaitasun tarteen arabera	Laguntza-modulua (€/kWh)	Enpresa handietarako laguntza (%)	Enpresa ertainetarako laguntza (%)	Enpresa txikietarako laguntza (%)
Biltegiratze-instalazioa Cap ≤ 10 kWh	700	% 45	% 55	% 65
Biltegiratze-instalazioa Cap > 10 kWh eta Cap ≤ 100 kWh	500	% 45	% 55	% 65

Instalazioa gaitasun tarteen arabera	Laguntza-modulua (€/kWh)	Enpresa handietarako laguntza (%)	Enpresa ertainetarako laguntza (%)	Enpresa txikietarako laguntza (%)
Biltegiratze-instalazioa Cap > 100 kWh eta Cap ≤ 5.000 kWh	350	% 45	% 55	% 65
Biltegiratze-instalazioa Cap > 5.000 kWh	200	% 45	% 55	% 65

Diruz lagundu daitekeen gehieneko ratioa 4 kWh/kWp fotovoltaiko edo kW eolikoa izango da, bai biltegiratzeko instalazio berrietarako, bai lehendik dauden instalazioen handitzeetarako. Baimenduta dago adierazitako gaitasun handiagoko biltegiratze-instalazioa, ratio hori gainditzen duen biltegiratze-zatirako dirulaguntzarik gabe.

Ratio hori kalkulatzeko, kontuan hartuko dira biltegiratze-ahalmen izendatu totala (berria eta/edo lehendik dagoena, kWh-tan) eta sorkuntza-potentzia totala (berria eta/edo lehendik dagoena, kWp fotovoltaikoan edo kW eolikoan).

3. Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen **jarduera ekonomikorik egiten ez duten** onuradunentzako laguntzaren kalkulua, **izaera publikoa dutelarik** (laugarren oinarrian adierazitakoak).

Eman beharreko laguntza honela kalkulatuko da: energia sortzeko instalazioari ematen zaion laguntza gehi, hala badagokio, energia biltegiratzeko instalazioari ematen zaiona.

Energia **sortzeko** instalazioetarako laguntzak banakako zenbateko finko edo «modulu» gisa emango dira, eta gehienez ere kostu subentzionagarri osoa estaliko dute.

Sorkuntzako laguntza = Sorkuntza-modulua x Ps

Non Ps instalatutako sorkuntza-instalazioaren potentzia baita, puntako kilowattetan (kWp), instalazio fotovoltaikoen kasuan, eta kilowattetan (kW) instalazio eolikoen kasuan.

Sortze-laguntzak ezin izango du gainditu egindako jarduketaren kostu subentzionagarria edo, hala badagokio, Programa honetan ezarritako mugetatik eratorritako murrizketak aplikatu ondoren ateratzen den kostu subentzionagarria, hau da, kostu hautagarria.

Nolanahi ere, ateratzen den laguntzaren gehieneko muga kostu hautagarriaren % 65 izango da.

Jarduketa bakoitzari eman beharreko laguntza definitzen duten sorkuntza-moduluak honako hauek dira:

Instalazioa potentzia tarteen arabera	Modulu indibiduala laguntza (€/kWp edo kW)	Modulu kolektiboa laguntza (€/kWp edo kW)
instalazio fotovoltaikoa P ≤ 10 kWp	1.000	1.110
instalazio fotovoltaikoa P > 10 kWp eta P≤ 100 kWp	750	835
instalazio fotovoltaikoa P > 100 kWp eta P≤ 1.000 kWp	650	720
instalazio fotovoltaikoa P > 1.000 kWp	500	555

Instalazioa potentzia tarteen arabera	Modulu indibiduala laguntza (€/kWp edo kW)	Modulu kolektiboa laguntza (€/kWp edo kW)
Sorkuntzako instalazio eolikoa P ≤ 20 kW	4.100	4.550
Sorkuntza-instalazio eolikoa P > 20 kW eta P ≤ 500 kW	2.700	3.000
Sorkuntza-instalazio eolikoa P > 500 kW	1.150	1.275

Modulu horiek handitu egingo dira eguzki-instalazio fotovoltaikoa ezarriko den **estalkiaren/estalkien azalera osoa** berritzen baldin bada (amiantoa kentzea, egitura aldatzea...); baita aparkalekuen estalki gisa balioko duten markesina fotovoltaikoak instalatzen direnean ere.

Modulu gehigarri horiek kontuan hartzeko, beharrezkoa da sorkuntza-potentzia osoaren % 80, gutxienez, gainazal **osoa** berritu deneko **estalkiaren/estalkien** gainean kokatzea (amiantoa kentzea, egitura-aldaketa...). Aparkalekuetarako markesinen kasuan, sorkuntzako guztizko potentziaren % 80 markesina fotovoltaikoen gainean instalatzeko eskakizuna ere bete behar da.

Jarduketa osagarriak	Sorkuntza-modulu gehigarria (€/kWp) (kasuaren arabera)
Eguzki-instalazio fotovoltaikoa jarriko den guneko estalkiaren/estalkien azalera osoa berritzea (amiantoa kentzea, egitura aldatzea...)	P ≤ 10 kWp: 200 €/kWp 10 kWp < P ≤ 100 kW: 160 €/kWp 100 kWp < P ≤ 1.000 kWp: 110 €/kWp P > 1.000 kWp: 100 €/kWp
Aparkalekuetarako estalki gisa balio duten eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako markesinak jartzea	P ≤ 10 kWp: 400 €/kWp 10 kWp < P ≤ 100 kWp: 350 €/kWp 100 kWp < P ≤ 1.000 kWp: 300 €/kWp P > 1.000 kWp: 250 €/kWp

Energia **biltegiratzeko** laguntzak banakako zenbateko finko edo «modulu» gisa emango dira, eta gehienez ere kostu subentzionagarri osoa estaliko dute.

Biltegiratze-laguntza = Biltegiratze-modulua x Kap

Kap izanik: benetan instalatutako biltegiratzeko instalazioaren kapazitate **nominala**, orduko kilowattetan (kWh).

Biltegiratze-laguntzak ezin izango du gainditu egindako jarduketaren kostu subentzionagarria edo, hala badagokio, Programa honetan ezarritako mugetatik eratorritako murrizketak aplikatu ondoren ateratzen den kostu subentzionagarria, hau da, kostu hautagarria.

Nolanahi ere, ateratzen den laguntzaren gehieneko muga kostu hautagarriaren % 65 izango da.

Jarduketa bakoitzari eman beharreko laguntza definitzen duten biltegiratze-moduluak honako hauek dira:

Instalazioa gaitasun tarteen arabera	Laguntza-modulua (€/kWh)
Biltegiratze-instalazioa Kap ≤ 10 kWh	455
Biltegiratze-instalazioa Kap > 10 kWh eta Kap ≤ 100 kWh	325

Instalazioa gaitasun tarteen arabera	Laguntza-modulua (€/kWh)
Biltegiratze-instalazioa Kap > 100 kWh eta Kap ≤ 5.000 kWh	227
Biltegiratze-instalazioa Kap ≤ 5.000 kWh	130

Diruz lagundu daitekeen gehieneko ratioa 4 kWh/(kWp fotovoltaiko edo kW eolikoa) izango da, bai biltegiratzeko instalazio berrietarako, bai lehendik dauden instalazioen handitzeetarako. Baimenduta dago adierazitako gaitasun handiagoko biltegiratze-instalazioa, ratio hori gainditzen duen biltegiratze-zatirako dirulaguntzarik gabe.

Ratio hori kalkulatzeko, kontuan hartuko dira biltegiratze-ahalmen izendatu totala (berria eta/edo lehendik dagoena, kWh-tan) eta sorkuntza-potentzia totala (berria eta/edo lehendik dagoena, kWp fotovoltaikoan edo kW eolikoan).

b) **Kontsumo termikoak energia berriztagarrien bidez elektrifikatzeko instalazioak egiteko inbertsioetarako laguntzaren zenbatekoa**

Potentzia, kilowattetan adierazia, laguntza kalkulatzeko garaian, bat etorriko da ekoizpen termiko instalatuaren potentziarekin (kW).

1º Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen **jarduera ekonomikorik egiten ez duten** onuradunentzako laguntzaren kalkulua, 3. puntu honetako b) ataleko 3. azpiatalean aipatutakoak izan ezik. Laguntzaren zenbatekoa.

Sorkuntza termikorako instalaziorako laguntzak honela kalkulatuko dira: instalatutako kW bakoitzeko sorkuntza-jarduketen eta laguntza-moduluen arabera, eta, hala badagokio, etxebizitza bakoitzeko gehieneko laguntzaren zenbatekoaren arabera.

Jarduketa bakoitzerako laguntza definitzen duten moduluak ondoko taulan ageri dira. Kontuan hartu behar da etxebizitzari aplikatutako laguntzaren muga ez dela inola ere aplikatuko beste erabilera batzuetarako erabiltzen diren bizitzeko guneetan:

Sorkuntza-jarduketak	Laguntza-modulua (€/kW)	Etxebizitza bakoitzeko gehieneko laguntza (€/etxebizitza)
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako instalazio aerotermikoak	500	3.000
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako zirkuitu bertikal itxiko instalazio geotermikoak.	2.250	13.500
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako zirkuitu irekiko instalazio geotermikoak eta hidrotermikoak.	1.600	9.000
Aire-aire bero-ponpen bidezko klimatizazio-sistemak	150	500
Aire-aire rooftop bidezko klimatizazio-sistemak	150	500

Laguntza = Sorkuntza-modulua x Ps

Non Ps baita instalatutako ekoizpen termikoko unitate bakoitzaren guztizko potentzia, kW-etan. Kontuan hartu behar da horiek fitxa teknikoetan adierazitako berokuntzako ekoizpen termikoko potentzien bidez edo sorkuntza-unitateen fabrikatzaileen espezifikazioen bidez lortuko direla, UNE-EN 14511 arauaren saiakuntzei jarraikiz, txosten teknikoan edo proiektuan adierazitako erabilera-tenperaturaren arabera. Berokuntza, hozte-sistema eta ur bero sanitarioa hornitzen duten ekoizpen-unitateetan, unitate bakoitzaren berokuntza-potentzia unitarioa hartuko da Ps-tzat, salbu eta

unitateak hozte-sistemarako bakarrik erabiltzen direnean, hozte-potentzia unitarioa hartuko baita potentzia gisa (Ps). UBSa bakarrik ekoizteko kasuren bat aurkeztuko balitz, UBSa modu unitarioan ekoizteko erabiliko da Ps-a. Aipatutako arauan oinarrituta Ps potentzia unitarioa justifikatzerik ez dagoen kasuetan, teknikari eskudun batek edo egiaztatutako enpresa batek sinatutako txosten bat aurkeztea eskatzen da, Ps potentzia justifikatuko duena.

Nolanahi ere, laguntzak ezin izango du gainditu benetan egin den eta behar bezala justifikatu den jarduketaren kostu hautagarriaren % 65.

2º Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen **jarduera ekonomikoa egiten duten** onuradunentzako laguntzaren kalkulua

Sorkuntza termikorako instalaziorako laguntzak honela kalkulatuko dira: bai sorkuntza-jarduketen arabera, bai bakoitzaren **gehieneko kostu subentzionagarri unitarioa (Csum)** bider instalatutako potentzia (kW), bai enpresaren tamainaren arabera aplikatu beharreko laguntzaren intentsitateen arabera.

Honako taula hauetan zehazten dira sorkuntza-jarduketak, **unitateko gehieneko kostu subentzionagarriaren** balioak (Csum) eta laguntzen intentsitateak:

Sorkuntza-jarduketak	Csum kostu subentzionagarri unitario maximoa (Csum) (€/kW)
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako instalazio aerotermikoak	1.000
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako instalazio geotermikoak	2.300
Aire-aire bero-ponpen bidezko klimatizazio-sistemak	350
Aire-aire rooftop bidezko klimatizazio-sistemak	500

Enpresa mota	Enpresa handia	Enpresa ertaina	Enpresa txikia
Laguntzaren intentsitatea	% 35	% 40	% 45

Energia termikoa sortzeko jarduketaren kostu subentzionagarri osoa honako hau izango da:

Kostu subentzionagarri total maximoa (€) = Batukaria (Csum x Ps)

Csum ekoizpen termikoko instalazio bakoitzaren kostu subentzionagarri unitarioa da; Ps, berriz, instalatutako ekoizpen termikoko unitate bakoitzaren potentzia totala, kW-etan. Kontuan izan behar da, halaber, fitxa teknikoetan adierazitako berokuntzako ekoizpen termikoko potentzien bidez edo sorkuntza-unitateen fabrikatzaileen espezifikazioen bidez lortuko direla, UNE-EN 14511 arauaren entseguen arabera, memoria teknikoan edo proiektuan adierazitako erabilera-tenperaturaren arabera. Berokuntza, hozte-sistema eta ur bero sanitarioa hornitzen duten ekoizpen-unitateetan, unitate bakoitzaren berokuntza-potentzia unitarioa hartuko da Ps-tzat, salbu eta unitateak hozte-sistemarako bakarrik erabiltzen direnean, hozte-potentzia unitarioa hartuko baita potentzia gisa (Ps). UBSa bakarrik ekoizteko kasuren bat aurkeztuko balitz, UBSa modu unitarioan ekoizteko erabiliko da Ps-a. Aipatutako arauan oinarrituta Ps potentzia unitarioa justifikatzerik ez dagoen kasuetan, teknikari eskudun batek edo egiaztatutako enpresa batek sinatutako txosten bat aurkeztea eskatzen da, Ps potentzia justifikatuko duena.

Hortaz, laguntza honako hau izango da:

Laguntza = Diruz lagundu daitekeen gehieneko kostua (€) x enpresaren tamainaren %-a

Nolanahi ere, laguntzak ezin izango du gainditu benetan egin den eta behar bezala justifikatu den jarduketaren kostu hautagarria.

3º Merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituen **jarduera ekonomikorik egiten ez duten** onuradunentzako laguntzaren kalkulua, **izaera publikoa dutelarik** (laugarren oinarrian adierazitakoak).

Sorkuntza termikorako instalaziorako laguntzak honako hauen arabera kalkulatuko dira: alde batetik, energia sortzeko jarduketen arabera eta instalatutako kW bakoitzeko **gehieneko kostu subentzionagarri unitarioaren (Csum)** balioaren arabera, eta, bestetik, aplikatu beharreko laguntzaren intentsitatearen arabera, zeina gehieneko kostu subentzionagarriaren % 50 izango baita.

Sorkuntza-jarduketak eta **gehieneko kostu subentzionagarri unitarioaren** (Csum) balioak hurrengo taulan zehazten dira.

Sorkuntza-jarduketak	Csum kostu subentzionagarri unitario maximoa (Csum) (€/kW)
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako instalazio aerotermikoak	1.130
Klimatizaziorako eta/edo ur bero sanitariorako instalazio geotermikoak	2.430
Aire-aire rooftop bidezko klimatizazio-sistemak	500

Energia termikoa sortzeko jarduketaren kostu subentzionagarri osoa honako hau izango da:

Kostu subentzionagarri total maximoa (€) = Batura (Csum x Ps)

Csum ekoizpen termikoko instalazio bakoitzaren kostu subentzionagarri unitarioa da; Ps, berriz, instalatutako ekoizpen termikoko unitate bakoitzaren potentzia totala, kW-etan. Kontuan izan behar da, halaber, fitxa teknikoetan adierazitako berokuntzako ekoizpen termikoko potentzien bidez edo sorkuntza-unitateen fabrikatzaileen espezifikazioen bidez lortuko direla, UNE-EN 14511 arauaren entseguen arabera, memoria teknikoan edo proiektuan adierazitako erabilera-tenperaturaren arabera. Berokuntza, hozte-sistema eta ur bero sanitarioa hornitzen duten ekoizpen-unitateetan, unitate bakoitzaren berokuntza-potentzia unitarioa hartuko da Ps-tzat, salbu eta unitateak hozte-sistemarako bakarrik erabiltzen direnean, hozte-potentzia unitarioa hartuko baita potentzia gisa (Ps). UBSa bakarrik ekoizteko kasuren bat aurkeztuko balitz, UBSa modu unitarioan ekoizteko erabiliko da Ps-a. Aipatutako arauan oinarrituta Ps potentzia unitarioa justifikatzerik ez dagoen kasuetan, teknikari eskudun batek edo egiaztatutako enpresa batek sinatutako txosten bat aurkeztea eskatzen da, Ps potentzia justifikatuko duena.

Hortaz, laguntza honako hau izango da:

Laguntza = Gehieneko kostu subentzionagarria (€) x % 50

Nolanahi ere, laguntzak ezin izango du gainditu benetan egin den eta behar bezala justifikatu den jarduketaren kostu hautagarriaren % 65.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

II. ERANSKINA

Dokumentazioa

1. Eskaera-fasean aurkeztu beharreko dokumentazioa

Dokumentu guztiak PDF formatuan aurkeztuko dira, testua pantailan horizontalean bistaratuta eta ahal bada trinkotu gabe.

a) Laguntza-eskaera egiteko eskatutako administrazio-dokumentazioa

1. Edozein eskatzaile-motarako

i. Laguntza eskatzen duen pertsonaren IFZ/AIZren kopia eta, hala badagokio, legez ordezkatzen duen pertsonarena, ordezkatzen den eskatzaile mota adieraziz (pertsona fisikoa, erakunde juridikoa, elkartea, komunitatea, ...). NANaren kopia aurkeztea ez da beharrezkoa izango baldin eta pertsona interesdunak espresuki uko egiten ez badio EEEk haren nortasun pertsonaleko datuak kontsultatzeari.

Bestetik, eskatzailearen IFZren/AIZren kasurako, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapenak Administrazio publikoei eskumena ematen die beren esku dauden datu pertsonalak egiaztatzeko, datu horien zehaztasuna egiaztatzearren.

ii. Eskaera lege-ordezkari baten bidez aurkezten bada, laguntza-eskaeraren sinatzaileak behar bezala egiaztatuta egon beharko du legez ezarritako baldintzetan eta ahalordetzeko eskritura edo dokumentua aurkeztu beharko du.. Laguntza-eskaera sinatzen duenaren (lege-ordezkaria) NANaren/AIZaren kopia ere aurkeztuko da.

iii. Eskaera pertsona ordezkari baten bidez aurkezten bada, laguntza-eskaeraren sinatzaileak behar bezala egiaztatuta egon beharko du eta ordezkaritza emateko dokumentua (www.eve.eus webgunean eskuragarri dagoena) aurkeztu beharko du, non laguntza-eskaera sinatzeko eta kudeatzeko baimena emango baitzaio. Laguntza-eskaera sinatzen duenaren (lege-ordezkaria) NANaren/AIZaren kopia ere aurkeztuko da.

iv. Pertsona eskatzaileak edo haren lege-ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, laguntza-eskaeraren formulario telematikoan dagoena, non honako hauek zehatz-mehatz jasota agertuko diren pertsona eskatzaileari dagokionez:

A. Ez dagoela DLOaren 13.2, 13.3 eta 13.3 bis artikuluetan aurreikusitako egoeretakoren batean.

B. Ez dagoela 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren batean.

C. Beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko betebeharrik ez daukala, edo, hala badagokio, beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko dituen betebeharrak zintzo bete dituela adierazita, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko aginduaren 4. eta 7. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz. Era berean, aplikagarria den legeriari jarraituz dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea eragiten duen ebazpen bidez zigortua ez dela izan. Zehazki, dagokion zehapenean ezarritako aldian zehar ez zaiola zigor administratibo edo penalik ezarri sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du pertsona eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzeko inhabilitazioarekin lotutako informazioa, DLOaren 13.2 artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.1 artikuluan xedatutakoari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, kasu horretan, erantzukizunpeko adierazpena ekarri beharko duelarik, atal honetan adierazitako terminoetan.

D. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez eguneratuta dagoela, DEOaren 22. artikuluan ezartzen denez.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan DEOaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bitartez, hori guztia Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari dagozkionak salbu, laguntzaren pertsona eskatzaileak ekarri beharko dituen ziurtagiriak.

Nolanahi ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahalko dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, eta kasu horretan, aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpena aurkezteaz gain, ziurtagiria aurkeztu beharko du bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eta egoitza fiskala egiaztatzeko.

Zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ogasuneko sailburuaren aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

E. Ez duela jarduketa edo xede bererako beste laguntzarik jaso. Eskatu baditu, eskatutako edo lortutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko du, baita laguntza eman duen administrazio, erakunde edo entitate publikoa ere. Beste laguntzarik jaso badu, eskaera-datan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboen kopia aurkeztu beharko da.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, edozein laguntza, dirulaguntza edo funtsak lortu izanari buruzko informazioa, 20/2023 Legearen 16. artikuluan eta DLOaren 32.ean xedatutakoari dagokionez.

F. Ez duela eskatu edo jaso beste diru-sarrera (adibidez EAZ) edo baliabide publiko edo pribaturik jarduketa edo helburu bererako. Eskatu baditu edo jaso baditu, eskatutakoaren edo lortutakoaren kopurua adieraziko da, bai eta erakunde emailea ere.

Beste diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso badira, funtsak emateko erabili diren tresna juridikoen kopia aurkeztu beharko da.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du pertsona eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, beste edozein diru-sarrera edo baliabideren lorpenari buruzko informazioa, baldin eta ziurtagiri horiek Administrazioaren eskuetan baldin badaude.

G. Bestelako laguntzekin, dirulaguntzekin, diru-sarrerekin, EAZko sistemaren diru-sarrerekin edo baliabide publiko zein pribatuekin batera, ez da

gainfinantzaketarik izan, eta konpromisoa hartzen du laguntzaren xede den jarduketa edo helburua ez gainfinantzatzeko.

H. Ekonomia zirkular baterako kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozleetako batean ez dela erori.

I. Jarduera ekonomiko bat egiten badu, EBk hartutako erabaki baten ondorioz ez dagoela zigortua, ez dagoela krisialdian, krisialdian dauden enpresen salbamendu eta berregituraketako estatuko laguntzei buruzko Batasuneko Zuzentarauek ezarritakoaren arabera (Batzordearen Jakinarazpena, 2014/C 249/1, 2014ko uztailaren 31); aldez aurretik eman zaien edozein laguntza edo dirulaguntzaren gainean egiteko dagoen berreskuratze-agindu baten pean ez dagoela, laguntza legez kanpokoa eta barne merkatuarekin bateraezina deklaratu delako, edo emakidan esleituta zetozkion betebeharren edozein ez-betetzegatik.

J. Sozietatearen helburu edo jarduera guztia edo zati bat ez dela armak ekoiztea, merkaturatzea eta finantzatzea (EAEko Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007).

K. Ez duela konkurtso-deklarazioa eskatu, ez dutela kaudimengabetzat jo edozein prozeduratan, ez dagoela konkurtsoan deklaratua, salbu eta horretan hitzarmen baten eraginkortasuna hartu badu, esku-hartze judizialaren mende ez dagoela edo ez dutela desgaitu uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe egonik.

L. Ez duela zigorrik jaso, epai irmo bidez, dirulaguntzak lortzeko aukera galtzearekin, prebarikazio, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak egiteagatik.

M. Ez duela eragin, erruduntzat jotzeko arrazoia dela-eta, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmorik.

N. Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak ez daudela Herri Administrazioen Zerbitzupeko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako bateraezintasun-araubideko kasuren batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguren bat ez direla, bertan ezarritako baldintzetan.

O. Ez dutela egoitza fiskala erregelamenduen arabera paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.

P. Enpresa bat baldin bada, konpromisoa hartzen duela enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluaren arabera.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

Q. Hondakinak kudeatzeko honako zehaztapen hauek betetzeko konpromisoa hartzen du:

1) Proiektuak eta garatzen diren jarduerek ez diotela ingurumenari kalte nabarmenik eragingo.

2) Eraikuntzaren lekuan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakin ez-arriskutsuen gutxienez % 70 (pisuan) (2000/532/EB Erabakiak ezarritako hondakinen Europako zerrendan 17 5 4 kategorian aipatutako material naturala alde batera utzita) berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, betetze-eragiketak barne, hondakinak beste material batzuen ordez erabiliz, hondakinen hierarkiarekin eta EBko eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorriz.

3) Hondakinen sorkuntza mugatuko da eraikuntza eta eraispenarekin zerikusia duten prozesuetan, EBko eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorriz, eskuragarri dauden teknikarik onenak erabiliz eta gaikako eraispena baliatuz substantzia arriskutsuen deuseztapen eta manipulazio segurua ahalbidetzeko, eta kalitate handiko berrerabilera eta birziklatzea errazteko materialak gaika deuseztatuz, eraikuntza- eta eraispen-hondakinetarako eskuragarri dauden sailkapen-sistemak erabiliz. Era berean, eraispena EAEn hondakinak kudeatzeko, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazitakoaren arabera egingo da.

4) Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen 105/2008 Errege Dekretuak eraikuntza- eta birgaitze-hondakinen arloan arautzen duen indarreko legeria beteko da. Horren arabera, eraikuntza-/birgaitze-proiektuek hondakinak kudeatzeko plan bat izan behar dute, hondakinen kantitatea eta nola berrerabiltzen, balioztatzen edo ezabatzen diren adierazita, eta behin hori egin ondoren hori egiaztatzen duen dokumentazioa eduki behar dute.

5) Aurreikusitako jarduerak garatzeko erabilitako osagaiek eta materialek ez dute amiantorik izango, ezta 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren XIV. eranskinean jasotako baimena behar duten substantzien zerrendan identifikatutako substantzia oso kezkagarririk ere.

R. Aurreikuspenaren arabera, laguntzaren xede den autokontsumo-instalazioari lotutako kontsumitzaileak edo kontsumitzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren urteko batura instalazio horrek urtean sortutako energiaren % 80 edo gehiago izango da betiere eta, gainera, laguntzen den instalazioari lotutako kontsumo guztia EAEko azken kontsumo gisa egingo da.. Sortutako energia elektrikoaren monitorizazio-sistema bat eduki beharko du instalazioak, honako funtzionaltasun hauekin:

1) Gutxienez, instalazio berriztagarriak egunean, hilean edo urtean produzitutako energia erakutsi beharko du, eta aldi horietarako dagokion kontsumo energetikoa. Sorkuntza kolektiboko instalazioen kasuan, sortutako energia bakarrik erakutsi beharko da.

2) Sistemak datu gehigarriak erakusteko aukera ere izango du, adibidez: saihestutako CO2 emisioak eta instalazioak sortutako aurrezki ekonomikoa.

3) Gailu mugikorren bidez edo web aplikazioaren bidez eskuratu ahalko da informazio hori.

S. Programaren oinarrietan kontuan hartutako modulu gehigarriak aplikatzeko eskakizuna betetzen da; izan ere, haietan adierazten da beharrezkoa dela sorkuntza-potentzia osoaren % 80, gutxienez, azalera osoa berritu den estalkiaren gainean egotea (amiantoa kentzea, egitura-aldaketa...). Aparkalekuetarako markesinen kasuan, sorkuntzako guztizko potentziaren % 80 markesina fotovoltaikoen gainean instalatzeko eskakizuna betetzen da.

T. Egiazkoak eta osoak dira eskabideko datu guztiak eta aurkeztutako dokumentazio guztia, eta dagokion erantzukizuna bere gain hartzen du. Datuak edo dokumentuak faltsutuz gero, indarrean dagoen zehapen-araubide administratiboaren eta penalaren mende egongo da, baldintzak betetzearen egiazkotasunari dagokionez eta pertsona onuradunaren egoera eduki ahal izateko debekuren menpe ez dagoela adierazteari dagokionez.

v. Jarduketa gauzatzea pertsona onuradunarekin lotutako pertsonak edo erakundeak azpikontratatzen badira (DLOren 29.7.d) artikulua), erantzukizunpeko adierazpena, pertsona onuradunaren legezko ordezkariak sinatua, inguruabar horren berri emanez eta gainkosturik izan ez dela egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkezteko konpromisoa hartuta. Kostuaren egiaztapena pertsona onuradunaren gastuak egiaztatzeko ezarritako baldintza berberetan egingo da justifikazioa egiteko fasean (gutxienez, eskaera edo kontratua, faktura eta azpikontratistak izan duen kostuaren ordainagiria aurkeztuko dira).

EEEk eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

2. Laguntza eskatzen duena Egoitza Jabeen Komunitate bat baldin bada gehitu beharrekoa

Bizitegi-jabekideen komunitateen kasuan, presidentea izendatzeko batzarraren akta.

3. 651/2014 Erregelamenduaren arabera laguntza eskatzen duena enpresatzat hartzen den kasuan gehitu beharrekoa

i. Erantzukizunpeko adierazpena, laguntza-eskaeraren formulario telematikoan barne hartua, non enpresa txikia, ertaina edo handia dela adieraziko den, EB 651/2014 Erregelamenduko I. Eranskinean jasotako definizioaren arabera, edo, hala badagokio, merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik gabeko erakunde bat dela.

Horrez gain, enpresa txiki edo ertainak badira 651/2014 Erregelamenduko I. eranskineko 2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, hori hala dela egiaztatu beharko dute honako dokumentazio hau aurkeztuz:

A. Enpresaren ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, enpresako langile-kopurua eta enpresa elkartuen edo lotuen langile-kopurua jasotzen dituena, partaidetza-datuak barne.

B. Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, enpresako langile kopuruari buruzko informazioa biltzen duena.

C. Itxitako azken kontabilitate-ekitaldiari dagozkion negozioen urteko bolumena edo urteko balantze orokorra egiaztatzeko agiria.

ii. Elkartutako edo lotutako enpresen itxitako azken kontabilitate-ekitaldiari dagozkion negozioen urteko bolumena edo urteko balantze orokorra egiaztatzeko agiria. Enpresa eskatzailea Enpresa Talde batekoa bada, taldea egiaztatzeko dokumentazioa, talde osoaren antolaketa-eskema jasoko duena, enpresen izenak eta IFZ, partaidetzak eta enplegu-datuak, ustiapen-zifra eta balantzea barne hartuko dituelarik, hori guztia itxitako azken kontabilitate-ekitaldiari dagokiona.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du pertsona eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean baiezta dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, enpresa-talde bateko kide izateari buruzko informazioa, aurreko paragrafoan identifikatutako datuak barne hartuz, baldin eta ziurtagiri horiek Administrazioaren eskuetan baldin badaude.

iii. Itxitako azken kontabilitate-ekitaldiari dagokion Sozietateen gainezko Zerga (200 eredua).

iv. Pertsona eskatzailearen jarduera ekonomikoari dagokion EJSN 2025 kodea jasota dagoen dokumentu ofiziala. EJSN kodea hainbat dokumentutan jasota egon daiteke, hala nola pertsona onuradunaren identifikazio fiskaleko txartelean, zentsu-aitorpenean, jarduera ekonomikoen gaineko zergan, eratzeko eskrituran, eta abar. Edozein modutan, pertsona onuradunak egiaztatu egin beharko du kode hori benetan espresuki jasota dagoela aurkeztu beharreko dagokion dokumentu ofizialean.

v. Indarreko araudiaren arabera berdintasun-plan bat edukitzera behartuta dauden enpresentzat, plan horren kopia edo, hala dagokionean, EAEko Berdintasun Planen Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan (edo baliokidean) erregistratu eta bertan utzi dela ziurtatzen duen ziurtagiria. 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, emakumeen eta gizonen berdintasun-alorreko Estatuko Legerian ezarritakoaren arabera sexu-jazarpena edo sexu-arrazoiengatiko jazarpena prebenitzeko eta hari aurre egiteko neurrien ezarpena egiaztatzen duen dokumentua.

4. 30.000 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan

30.000 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeari (hemendik aurrera, “3/2004 Legea”) lotutako irabazi-asmoa duten zuzenbide publikoko erakundeez besteko pertsona juridikoak badira eskatzaileak, aipatutako Legean onuradun izaera lortzeko finkatutako ordainketa-epeak bete beharko dituzte. Ezarritako betetze-mailaren egiaztapena honako froga-bitartekoen bidez egingo da:

i. Kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen pertsona juridikoek:
   A. Entitateak galdu-irabazien kontu laburtuak aurkezteko kontabilitate-araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa:
      1) Eskuragarri dagoen azken urterokoaren onartutako balantzea.
      2) Azken urteko galdu-irabazien kontu laburtua, dagokion erregistroan inskribatua, edo, errekerimendu-epea bukatutakoan inskribatuta ez badago, onartuta dagoena.
      3) Altan daudenlangileen batez besteko plantillari buruzko txostena, Gizarte Segurantzak egina, erakundearen kotizazio-kodeei buruzkoa, aurrez adierazitako dokumentazioari dagokion urtekoari dagokiona.

B. Administrazio-organoak edo ordezkaritza-ahalmen nahikoa duen organo baliokideak sinatutako ziurtagiria, 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzen direla adierazten duena.

Egoera hori egiaztatu ahal izango dute, halaber, galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoei buruzko atalean aurreikusitako frogabideen bidez (DLOaren 13.3.bis artikuluaren b) letra); kasu horretarako, badago erantzukizunpeko adierazpenaren eredu bat (DR-betetzeak -legea-berankortasuna) EEEren webgunean.

ii. Kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoek:

A. Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditoreak emandako ziurtagiria, ikuskatutako urteko azken kontuen memorian deskribatzen den ordainketen arloko informazioaren transkripzio xehatua jasotzen duena, kontu horietatik ondorioztatzen bada 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak betetzen direla, 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian eskatutako informazioan oinarrituta. Ziurtagiri horrek hurrengo ekitaldiko urteko kontuak ikuskatu arte balioko du.

B. Aurreko zenbakian aipatzen den ziurtagiria jaulkitzea ezinezkoa bada, «Adostutako Prozeduren Txostena», KAEOn inskribatutako auditore batek egina aurkeztuko da, baldin eta, erreferentziako data batean sozietatearen hornitzaileei ordaintzeke dauden fakturen lagin adierazgarri bat berrikustean oinarrituta, 3/2004 Legearen ordainketa-epeak betetzeari buruzko salbuespenik antzeman gabe amaitzen bada, edo antzematen badira, salbuespenok ez badute eragozten enpresak sortu eta hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legearen (aurrerantzean, 18/2022 Legea) azken xedapenetako seigarrenean, d) idatz-zatian, bigarren paragrafoan, aurreikusitako betetze-maila lortzea.

DLOari dagokionez, atal honetan eskatutako baldintza betetzat joko da 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeen betetze-maila 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren d) apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako ehunekoaren berdina edo handiagoa denean.

b) **Laguntza-eskaera** egiteko eskatutako dokumentazio tekniko-ekonomikoa

1. Energia berriztagarrien iturriekin autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazio berriak egiteko inbertsioetarako, lehendik dauden instalazioak handitzeko eta energia elektrikoa sortzeko instalazio berriei nahiz lehendik dauden instalazioei lotutako biltegiratze-instalazioetarako inbertsioetarako.

i. Hautatutako eskaintza, non zehatz-mehatz banakatu beharko diren aurrekontu-partida guztiak edo jarduera subentzionagarriari buruzko kontzeptuak. Argi eta garbi bereizi beharko dira elektrizitatea sortzeko instalazioari dagozkion partidak, alde batetik, eta biltegiratze elektrikoko instalazioari dagozkion partidak, bestetik.

Kontratazio publikoari buruzko araudia bete behar duten eskatzaileen kasuan, dokumentazio horren ordez, dagozkion lizitazio-agirien zirriborroak aurkeztu ahal izango dira.

ii. Hala dagokionean, hainbat hornitzaileri eskatutako eskaintzen multzoa. Gogoan izan behar da zazpigarren oinarriaren 3. atalaren arabera eta diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoaren arabera, eskaintzen gutxieneko kopuruak hiru (3) izan behar duela, eta horien artean egin beharreko proposamena (aurreko

paragrafoan adierazitako eskaintza hautatua). Hiru eskaintzek diru-laguntzaren xede den jarduketa berari egin behar diote erreferentzia; beraz, elkarren artean konparagarriak izan beharko dute instalatu beharreko potentziari eta biltegiratzeko gaitasunari dagokienez.

Hala dagokionean, aurkeztutako eskaintzen artean proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez den kasurako frogagiria.

iii. Jarduera EZE baten bidez gauzatzea aukeratu bada, eta diru-laguntzaren xede den jarduera barnean hartuko duen energia-zerbitzuen aurretiazko kontratu bat baldin badago, EZEren eta laguntzaren onuradunaren artean sinatua eta seigarren oinarrian adierazitakoa baino lehenagoko data duena (jarduera ekonomikorik gabeko pertsona den edo jarduera ekonomikoa duen pertsona den), aipatutako energia-zerbitzuen kontratuaren kopia aurkeztu beharko da, eta nolanahi ere, honako bi baldintza hauetakoren bat bete beharko du, seigarren oinarrian ezarritakoa ez urratzeko: a) kontratuak ez du jasotzen diru-laguntzaren xede den jarduketa edo proiektua gauzatzea; b) kontratuak diru-laguntzaren xede den jarduketa gauzatzea jasotzen du, baina haren eraginkortasuna eta gauzatzea diru-laguntzak jasotzearen mende egonik.

Gainera, EZEren eta laguntzaren onuradunaren artean sinatutako energia-zerbitzuen kontratuaren kopian, EZEk diruz lagundutako jarduera gauzatzeko hartutako konpromisoa adierazi beharko da. Gainera, kontratuari eranskin bat erantsi beharko zaio, juridikoki loteslea alderdientzat, eta bertan jasoko da EZEk laguntza osoa pertsona onuradunari jasanarazteko konpromisoa hartzen duela, eta laguntza hori nola jasanaraziko den deskribatuko da.

iv. Jarduera finantza-errentamendu (leasing) baten bidez gauzatzea aukeratu bada, eta diru-laguntzaren xede den jarduera barnean hartuko duen errentamenduko aurretiazko kontratu bat baldin badago, finantza-erakunde edo leasing-konpainiaren eta laguntzaren onuradunaren artean sinatua eta seigarren oinarrian adierazitakoa baino lehenagoko data duena (jarduera ekonomikorik gabeko pertsona den edo jarduera ekonomikoa duen pertsona den), aipatutako kontratuaren kopia aurkeztu beharko da, eta nolanahi ere, honako bi baldintza hauetakoren bat bete beharko du, seigarren oinarrian ezarritakoa ez urratzeko: a) kontratuak ez du jasotzen diru-laguntzaren xede den jarduketa edo proiektua gauzatzea; b) kontratuak diru-laguntzaren xede den jarduketa gauzatzea jasotzen du, baina haren eraginkortasuna eta gauzatzea diru-laguntzak jasotzearen mende egonik.

Onuraduna errentari gisa agertuko da kontratuan, eta finantza-erakundea edo leasing-konpainia errentatzaile gisa; kontratuan jaso beharko da errentatzaileak konpromisoa hartu duela diruz lagundutako jarduketa gauzatzeko, bi aldeek konpromisoa hartu dutela kontratua hasi zenetik juridikoki loteslea izango dena kontratua amaitzean erosteko aukera gauzatzeko, eta errentatzaileak konpromisoa hartu duela laguntza osoa onuradunari jasanarazteko, laguntza hori nola jasanaraziko den deskribatuta.

v. Diru-laguntzaren xede diren jarduerak zein tokitan egingo diren erakusten duen argazki-erreportajea, jarduerak gauzatu aurretik.

vi. Instalazio berriaren proiektuaren deskripzio-memoria teknikoa, gutxienez honako informazio hau barne:

Autokontsumorako elektrizitatea sortzeko teknologia fotovoltaikoko instalazioetarako:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

A. Datu Orokorrak

Jarduketaren tipologia: autokontsumoa 244/2019 EDren arabera, isolatua, 244/2019 EDra bilduta ez dagoen sorkuntza	
Jarduketa subentzionagarriaren deskribapena	
Proiektuaren kostua, guztira	€
Kostu hautagarriak, partiden banakapena barne	€

Proiektuaren kokapena (zuzendaritza)		
Proiektuaren kokapen zehatza (latitudea/longitudea)	Lat.:	Long.:
Teknologia (monofaziala, bifaziala)		
Kokapena (estalkia, lurzorua, fatxada…)		
Modulu fotovoltaikoen potentzia nominala	kWp	
Modulu fotovoltaikoen marka eta modeloa		
Modulu fotovoltaikoen kopura		
Inbertitzaileen potentzia nominala	kW	
Marka eta modeloa		
Inbertitzaileen kopurua		
PVGIS sistemaren arabera instalazioak urtean sor dezakeen energia	kWh/urte	
Instalazio mota	Isolatua	Sareari konektatua
Sorkuntza-modalitatea (indibiduala/kolektiboa)	Indibiduala	Kolektiboa
Sorkuntza-modalitatea (soberakinekin /soberakinik gabe)	Soberakinekin	Soberakinik gabe
"Soberakinekin" modalitatearen kasuan (konpentsazioarekin/sarerako salmentarekin)	Konpentsazioarekin	Sarerako salmentarekin
Kontsumitzailearen/kontsumitzaileen Hornidura Puntuaren Kode Unibertsala (CUPS)		

Bizitegi-sektoreko jabe-erkidegoek, energia berriztagarrien erkidegoek eta energiaren herritar-komunitateek CUPS bat adierazi behar dute gutxienez, kontsumitzaileen CUPS **guztiak** zehaztea izanik egokiena.

Biltegiratzea	Bai / Ez
Teknologia (gela, ion-litioa, …)	
Bateria kopurua	
Biltegiratze-sistemaren ahalmen osoa	kWh
Biltegiratze-instalazioaren potentzia osoa	kW
Instalatutako baterien marka eta modeloa	

Estalkiko amiantoa kentzea	Bai / Ez
Modulu fotovoltaikoen potentzia nominala	kWp
Guztiz berritzen den estalkiaren/estalkien gaineko modulu fotovoltaikoen puntako potentzia totala	kWp

Markesina fotovoltaikoak aparkalekuetarako	Bai / Ez
Modulu fotovoltaikoen potentzia nominala	kWp
Aparkalekuetarako markesinen gaineko modulu fotovoltaikoen potentzia nominal totala	kWp

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

B. Proiektuaren deskribapen teknikoa, gutxienez, honako hauek barne hartu beharko dituelarik:

1) Instalazioaren potentzia osoa.
2) Instalazioaren konfigurazioa: egitura mota (planokidea, inklinatua, jarraitzailearekin…).
3) Orientazioa: fotovoltaikoen kasuan, hegoaldearekiko desbideratzearen eta inklinazio-angeluaren arabera.
4) Errendimenduaren kalkulua. Instalazio fotovoltaikoen kasu espezifikoan, Europar Batasunak garatutako PVGIS Irradiazio Fotovoltaikoko Informazio Geografikoko Sisteman oinarrituta egingo da kalkulua, % 14ko galera estandarrak aintzat hartuta, honako link honen bitartez: https://re.jrc.ec.europa.eu/pvg_tools/es/#PVP
5) Urteko produkzio-aurreikuspenaren simulazioa.
6) Proposatutako ekipamendua:
   - Elektrizitatea sortzeko ekipoak:
     a) Elektrizitatea sortzeko ekipoen kopurua (modulu fotovoltaikoak) eta haien potentzia unitarioa.
     b) Marka eta modeloa.
     c) Produkzio-ekipoen teknologia mota: beste ezaugarri batzuen artean, panel mota zehaztuko da, monokristalinoa edo polikristalinoa.
   - Inbertitzailea:
     a) Inbertitzaile kopurua eta haien potentzia unitarioa.
     b) Marka eta modeloa.
     c) Ezaugarri tekniko espezifikoak.
   - Erregulagailua (instalatuz gero):
     a) Kopurua eta mota.
   - Biltegiratze-ekipoak (instalatuz gero):
     a) Teknologia (gela, ion-litioa, …).
     b) Bateria kopurua.
     c) Biltegiratze-sistemaren ahalmen osoa (kWh).
     d) Biltegiratze-instalazioaren potentzia osoa (kW).
     e) Instalatutako baterien marka eta modeloa.

C. Lehendik dauden instalazioen handitzeen kasuan, memorian adierazi beharko dira bai lehendik dagoen instalazioaren datuak, bai proposatutako handitzearenak: ekipo nagusien kopurua, potentzia eta/edo ahalmena, hori guztia bereizita.

Autokontsumorako elektrizitatea sortzeko teknologia eolikoko instalazioetarako:

A. Datu Orokorrak

Jarduketaren tipologia: autokontsumoa 244/2019 EDren arabera, isolatua, 244/2019 EDra bilduta ez dagoen sorkuntza	
Jarduketa subentzionagarriaren deskribapena	
Proiektuaren kostua, guztira	€
Kostu hautagarriak, partiden banakapena barne	€

Proiektuaren kokapena (zuzendaritza)		
Proiektuaren kokapen zehatza (latitudea/longitudea)	Lat.;	Long.:
Potentzia unitario nominala	kW	
Aerosorgailuen kopurua		
Potentzia nominal totala	kW	

Tentsio nominala	V	
Aerosorgailuen marka eta modeloa		
Inbertitzaileen potentzia nominala	kW	
Marka, modeloa eta inbertsiogileen kopurua		
Instalazioak urtean sor dezakeen energia	kWh/urte	
Instalazio mota	Isolatua	Sareari konektatua
Sorkuntza-modalitatea (indibiduala/kolektiboa)	Indibiduala	Kolektiboa
Sorkuntza-modalitatea (soberakinekin /soberakinik gabe)	Soberakinekin	Soberakinik gabe
«Soberakinekin» modalitatearen kasuan (konpentsazioarekin/sarerako salmentarekin)	Konpentsazioarekin	Sarerako salmentarekin
Kontsumitzailearen/kontsumitzaileen Puntuaren Kode Unibertsala (CUPS)	Hornidura	

Bizitegi-sektoreko jabe-erkidegoek, energia berriztagarrien erkidegoek eta energiaren herritar-komunitateek CUPS bat adierazi behar dute gutxienez, kontsumitzaileen CUPS **guztiak** zehaztea izanik egokiena.

Biltegiratzea	Bai / Ez
Teknologia (gela, ion-litioa, …)	
Bateria kopurua	
Biltegiratze-sistemaren ahalmen osoa	kWh
Biltegiratze-instalazioaren potentzia osoa	kW
Instalatutako baterien marka eta modeloa	

B. Proiektuaren deskribapen teknikoa, gutxienez, honako hauek barne:

Aerosorgailua:
a. Fabrikatzailea/marka eta modeloa
b. Mota (ardatz bertikala/horizontala)
c. Aerosorgailuen kopurua
d. Pala kopurua
e. Palen materiala
f. Errotorearen diametroa (m)
g. Pisua (kg)
h. Aerosorgailuaren potentzia-kurba

Dorrea:
a. Mota (tubularra, …)
b. Altuera (m)
c. Materiala
d. Pisua (kg)

Haizearen abiadura (m/s)
a. Abiatzekoa
b. Nominala
c. Jasandako haize-abiadura maximoa funtzionamendu bikainean

Urteko produkzio-aurreikuspenaren simulazioa.

Inbertitzailea:
a. Inbertitzaile kopurua eta haien potentzia unitarioa.
b. Marka eta modeloa.
c. Ezaugarri tekniko espezifikoak.

Erregulagailua (instalatuz gero):
a. Kopurua eta mota.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

Biltegiratze-ekipoak (instalatuz gero):
a. Teknologia (gela, ion-litioa, …)
b. Bateria kopurua
c. Biltegiratze-sistemaren ahalmen osoa (kWh)
d. Biltegiratze-instalazioaren potentzia osoa (kW)
e. Instalatutako baterien marka eta modeloa.

vii. Energia-sorkuntzako ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaren kopia).

viii. Biltegiratze-ekipoaren enpresa fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaren kopia).

ix. Instalazio fotovoltaikoetarako, PVGIS sistemaren «Sareari konektatutako sistema fotovoltaiko baten errendimenduari» buruzko dokumentua https://re.jrc.ec.europa.eu/pvg_tools/es/#PVP.

x. Erantzukizunpeko adierazpena, eskatzaileak edo haren legezko ordezkariak sinatua; bertan, behar bezala justifikatu beharko da, urteko zenbaketan, laguntzaren xede den sortze-instalazioaren kontsumitzaile edo kontsumitzaile elkartuek kontsumitutako energia elektrikoaren batura instalazio horrek sortutako urteko energiaren % 80 edo gehiago dela, eta, gainera, kontsumo hori EAEren barruko azken kontsumo gisa egingo dela (eredua EEEren web orrian eskura daiteke).

xi. Diruz lagundu daitekeen jardueraren proiektuan «Eguzki-instalazio fotovoltaikoa jarriko den estalkiaren/estalkien azalera osoa berritzea (amiantoa kentzea, egitura aldatzea...)» sartzen bada, eta aparkalekuen estalki gisa balioko duten markesina fotovoltaikoak jartzen badira, proiektuaren planoak aurkeztu beharko dira, eta haietan argi eta garbi identifikatu beharko da estalkiaren/estalkien azalera osoa eta/edo markesina/k.

xii. «Eguzki-instalazio fotovoltaikoa jarriko den estalkiaren/estalkien azalera osoa berritzea (amiantoa kentzea, egitura-aldaketa...)» eta/edo «Aparkalekuen estalki gisa balioko duten eguzki-energia fotovoltaikoko proiektuetarako markesinak instalatzea» jarduketa gehigarrien kasuetan, deklarazio bat aurkeztu beharko da, sorkuntzaren guztizko potentziaren % 80, gutxienez, estalitako marken edo aparkalekuen gainean (EEEren webgunean eskuragarri dagoen eredua) egoteko eskakizuna betetzen dela dioena.

xiii. Diru-laguntzaren xede den jarduerak lehendik dagoen instalazio bat handitzea dakarrenean (sortzea, sortzea gehi biltegiratzea, edo biltegiratzea bakarrik), sortze-elementuak martxan jartzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, lehendik dagoen instalazioari dagokion organo eskudunaren zigiluarekin.

xiv. Biltegiratze-sistemak barne hartzen badira, teknikari eskudun batek edo enpresa instalatzaile batek sinatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da. Adierazpen horrek egiaztatuko du biltegiratze-sistema ez dagoela zuzenean sarera konektatuta, baizik eta energia sortzeko instalazioaren parte izango dela, eta biltegiratze-sisteman kargatutako energiaren % 75, gutxienez, sortze-instalaziotik etorriko dela.

xv. 244/2019 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera autokontsumotzat hartzen ez diren energia elektriko berriztagarria sortzeko instalazioen kasuan, kontsumitzaileen eta sortze-instalazioaren arteko jabetza-lotura egiaztatzen duen agiria. Dokumentu horretan sorkuntzari lotutako pertsona kontsumitzaileak identifikatu ahal izango dira.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

EEEk eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

2. Kontsumo termikoak energia berriztagarrien bidez elektrifikatzeko instalazioak egiteko inbertsioetarako

i. Hautatutako eskaintza, non zehatz-mehatz banakatu beharko diren aurrekontu-partida guztiak edo jarduera subentzionagarriari buruzko kontzeptuak. Argi eta garbi bereizi beharko dira elektrizitatea sortzeko instalazioari dagozkion partidak, alde batetik, eta, bestetik, zerbitzuen azken banaketako elementuen (berokuntza, hozkuntza eta/edo UBSa) instalazioari dagozkion partidak.

Kontratazio publikoari buruzko araudia bete behar duten eskatzaileen kasuan, dokumentazio horren ordez, dagozkion lizitazio-agirien zirriborroa aurkeztu ahal izango da.

ii. Hala dagokionean, hainbat enpresa hornitzaileri eskatutako eskaintzen multzoa. Gogoan izan behar da zazpigarren oinarriaren 3. atalaren arabera eta diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoaren arabera, eskaintzen gutxieneko kopuruak hiru (3) izan behar duela, eta horien artean egin beharreko proposamena (aurreko paragrafoan adierazitako eskaintza hautatua). Hiru eskaintzek diru-laguntzaren xede den jarduketa berari egin behar diote erreferentzia; beraz, elkarren artean konparagarriak izan beharko dute instalatu beharreko potentziari dagokienez.

Hala dagokionean, aurkeztutako eskaintzen artean proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez den kasurako frogagiria.

iii. Jarduera EZE baten bidez gauzatzea aukeratu bada, eta diru-laguntzaren xede den jarduera barnean hartuko duen energia-zerbitzuen aurretiazko kontratu bat baldin badago, EZEren eta laguntzaren onuradunaren artean sinatua eta seigarren oinarrian adierazitakoa baino lehenagoko data duena (jarduera ekonomikorik gabeko pertsona den edo jarduera ekonomikoa duen pertsona den), aipatutako energia-zerbitzuen kontratuaren kopia aurkeztu beharko da, eta nolanahi ere, honako bi baldintza hauetakoren bat bete beharko du, seigarren oinarrian ezarritakoa ez urratzeko: a) kontratuak ez du jasotzen diru-laguntzaren xede den jarduketa edo proiektua gauzatzea; b) kontratuak diru-laguntzaren xede den jarduketa gauzatzea jasotzen du, baina haren eraginkortasuna eta gauzatzea diru-laguntzak jasotzearen mende egonik.

iv. Diru-laguntzaren xede diren jarduerak zein tokitan egingo diren erakusten duen argazki-erreportajea, jarduerak gauzatu aurretik.

v. Instalazio berriaren proiektuaren deskripzio-memoria teknikoa, gutxienez honako informazio hau barne:

Jarduketaren tipologia	
Jarduketa subentzionagarriaren deskribapena	
Instalazioaren potentzia nominala	kW
Ponparen irteerako tenperatura berokuntza-moduan	ºC
Ponparen irteerako tenperatura hozketa-moduan	ºC
Ekipo kopurua	
Unitateko potentzia	kW
Instalazioak urtean sor dezakeen energia termikoa	
Instalazioaren urteko funtzionamendua	h/urte

Proiektuaren kostua, guztira	€
Instalazioak urtean sor dezakeen energia termikoa	kWh/urte
Girotutako azalera	m^2
Kostu hautagarriak, partiden banakapenaren arabera	€

Proiektuaren kokapena (zuzendaritza)		
Proiektuaren kokapen zehatza (latitudea/longitudea)	Lat:	Lon:
Proiektua kokatzen den jarduera-sektorea	Egoitzakoa, Publikoa, Industria, Merkataritza	
Teknologia		
Fabrikatzailea		
Marka		
Modeloa		
Lehendik dauden instalazioak eraitsiko dira?	Bai/Ez	
Zer energia-iturri erabiltzen da gaur egun eskari termikoak betetzeko?	Bat ere ez/Zehaztu	
Familia bakarreko edo familia anitzeko (blokea) etxebizitza da?	Familia bakarrekoa/Familia anitzekoa	
Etxebizitza-blokeetarako: etxebizitza eta lokal kopurua blokearen barruan	Etxebizitzak	
	Lokalak	
Instalazio hibridoa: Instalazio horrez gain, ba al da instalazio konbentzionalen baten laguntzarik?	Bai/Ez	

Proiektuaren kokapena argi eta garbi identifikatu beharko da, posta-helbide osoa (kalea, zenbakia edo km eta udalerria), udalerria eta partzela edo poligono-zenbakia, katastro-erreferentzia edo UTM koordenatuak adierazita.

vi. Sorkuntza termikoko ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaren kopia).

vii. Instalazioa legeztatzeko beharrezkoa denean, proiektua (instalazioa legeztatzeko beharrezkoa bada, EITEn ezarritakoaren arabera) edo memoria teknikoa aurkeztu beharko da, non egin beharreko jarduerak eta hasierako egoera behar bezala deskribatuko diren.

viii. Jarduketa subentzionagarrietarako, EITEn ezarritakoaren arabera proiekturik edo memoria teknikorik behar ez den kasuetan, proiektuaren memoria deskriptibo teknikoan aurreko datu horiek erantsiko dira:

Kontzeptua	Berokuntza	Hozte-sistema	Ur bero sanitarioa
Potentzia nominala (kW)			
Urteko energia termiko estimatua (kWh/urtean)			
Urtaroko batez besteko errendimendua			
Urteko energia elektriko kontsumitua (kWh/urtean)			
Instalazioaren urteko funtzionamendua (orduak/urtean)			

ix. Instalazio geotermikoetarako, honakoa ere gehituko da:

Kontzeptua	Sistema (irekia/itxia)	Kopurua zundaketak	Zundaketaren sakontasuna (m)
Bilketa-eremua			

x. Girotze-instalazioa aire-aire bero-ponpa edo rooftop aire-aire bidez egiten denean bakarrik aurkeztu beharko da laguntza eskatzen duen pertsonak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena. Adierazpen horretan adierazi beharko da girotze-instalazioaren kokalekuaren zuzendaritzako HPSa zuzenean edo zeharka lotuta egongo dela jatorri berriztagarriko instalazio edo generazio elektrikoko instalazio batekin.

2. Justifikazio-fasean aurkeztu beharreko dokumentazioa

Dokumentu guztiak PDF formatuan aurkeztuko dira, testua pantailan horizontalean bistaratuta eta ahal bada trinkotu gabe.

a) Egindako jarduketak justifikatzeko eskatutako dokumentazio administratibo-ekonomikoa.

1. Pertsona eskatzaileak edo haren lege-ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, non honako hauek zehatz-mehatz jasota agertuko diren pertsona eskatzaileari dagokionez:

   i. Ez dagoela DLOaren 13.2, 13.3 eta 13.3 bis artikuluetan aurreikusitako egoeretakoren batean.

   ii. Ez dagoela 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren batean.

   iii. Beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko betebeharrik ez daukala, edo, hala badagokio, beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko dituen betebeharrak zintzo bete dituela adierazita, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko aginduaren 4. eta 7. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz. Era berean, aplikagarria den legeriari jarraituz dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea eragiten duen ebazpen bidez zigortua ez dela izan. Zehazki, dagokion zehapenean ezarritako aldian zehar ez zaiola zigor administratibo edo penalik ezarri sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik.

   Justifikazioa aurkezteak berekin ekarriko du pertsona eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzeko inhabilitazioarekin lotutako informazioa, DLOaren 13.2 artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.1 artikuluan xedatutakoari dagokionez.

   Hala eta guztiz ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, kasu horretan, erantzukizunpeko adierazpena ekarri beharko duelarik, atal honetan adierazitako terminoetan.

   iv. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez eguneratuta dagoela, DEOaren 22. artikuluan ezartzen denez.

   Justifikazioa aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan DEOaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bitartez, hori guztia Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari dagozkionak salbu, laguntzaren eskatzaileak ekarri beharko dituen ziurtagiriak.

   Nolanahi ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahalko dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, eta kasu horretan, aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpena aurkezteaz gain, ziurtagiria aurkeztu beharko du bere zerga-

betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eta egoitza fiskala egiaztatzeko.

Zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ogasuneko sailburuaren aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

v. Ez duela jarduketa edo xede bererako beste laguntzarik jaso. Eskatu baditu, eskatutako edo lortutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko du, baita laguntza eman duen administrazio, erakunde edo entitate publikoa ere. Beste laguntzarik jaso badu, justifikazio-datan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboen kopia aurkeztu beharko da.

Justifikazioa aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, edozein laguntza, dirulaguntza edo funtsak lortu izanari buruzko informazioa, 20/2023 Legearen 16. artikuluan eta DLOaren 32.ean xedatutakoari dagokionez.

vi. Ez duela eskatu edo jaso beste diru-sarrera (adib. EAZ) edo baliabide publiko edo pribaturik jarduketa edo helburu bererako. Eskatu baditu edo jaso baditu, eskatutakoaren edo lortutakoaren kopurua adieraziko da, bai eta erakunde emailea ere.

Beste diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso badira, funtsak emateko erabili diren tresna juridikoen kopia aurkeztu beharko da.

Justifikazioa aurkezteak berekin ekarriko du pertsona eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, beste edozein diru-sarrera edo baliabideren lorpenari buruzko informazioa, baldin eta ziurtagiri horiek Administrazioaren eskuetan baldin badaude.

vii. Bestelako laguntzekin, dirulaguntzekin, diru-sarrerekin, EAZko sistemaren diru-sarrerekin edo baliabide publiko zein pribatuekin batera, ez da gainfinantzaketarik izan, eta konpromisoa hartzen du laguntzaren xede den jarduketa edo helburua ez gainfinantzatzeko.

viii. Ekonomia zirkular baterako kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozleetako batean ez dela erori.

ix. Jarduera ekonomiko bat egiten badu, EBk hartutako erabaki baten ondorioz ez dagoela zigortua, ez dagoela krisialdian, krisialdian dauden enpresen salbamendu eta berregituraketako estatuko laguntzei buruzko Batasuneko Zuzentarauek ezarritakoaren arabera (Batzordearen Jakinarazpena, 2014/C 249/1, 2014ko uztailaren 31); aldez aurretik eman zaien edozein laguntza edo dirulaguntzaren gainean egiteko dagoen berreskuratze-agindu baten pean ez dagoela, laguntza legez kanpokoa eta barne merkatuarekin bateraezina deklaratu delako, edo emakidan esleituta zetozkion betebeharren edozein ez-betetzegatik.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO DE LA ENERGÍA

x. Sozietatearen helburu edo jarduera guztia edo zati bat ez dela armak ekoiztea, merkaturatzea eta finantzatzea (EAEko Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007).

xi. Ez duela konkurtso-deklarazioa eskatu, ez dutela kaudimengabetzat jo edozein prozeduratan, ez dagoela konkurtsoan deklaratua, salbu eta horretan hitzarmen baten eraginkortasuna hartu badu, esku-hartze judizialaren mende ez dagoela edo ez dutela desgaitu uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe egonik.

xii. Ez duela zigorrik jaso, epai irmo bidez, dirulaguntzak lortzeko aukera galtzearekin, prebarikazio, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak egiteagatik.

xiii. Ez duela eragin, erruduntzat jotzeko arrazoia dela-eta, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmorik.

xiv. Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak ez daudela Herri Administrazioen Zerbitzupeko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako bateraezintasun-araubideko kasuren batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguren bat ez direla, bertan ezarritako baldintzetan.

xv. Ez dutela egoitza fiskala erregelamenduen arabera paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.

xvi. Enpresa bat baldin bada, konpromisoa hartzen duela enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluaren arabera.

xvii. Hondakinen kudeaketari dagokionez:

A. Proiektuak eta garatzen diren jarduerek ingurumenari ez diotela eragin eta ez diotela eragingo kalte nabarmenik.

B. Eraikuntzaren lekuan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakin ez-arriskutsuen gutxienez % 70 (pisuan) (2000/532/EB Erabakiak ezarritako hondakinen Europako zerrendan 17 5 4 kategorian aipatutako material naturala alde batera utzita) berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatu da, betetze-eragiketak barne, hondakinak beste material batzuen ordez erabiliz, hondakinen hierarkiarekin eta EBko eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorriz.

C. Hondakinen sorkuntza mugatu egin da eraikuntza eta eraispenarekin zerikusia duten prozesuetan, EBko eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorriz, eskuragarri dauden teknikarik onenak erabiliz eta gaikako eraispena baliatuz substantzia arriskutsuen deuseztapen eta manipulazio segurua ahalbidetzeko, eta kalitate handiko berrerabilera eta birziklatzea errazteko materialak gaika deuseztatuz, eraikuntza- eta eraispen-hondakinetarako eskuragarri dauden sailkapen-sistemak erabiliz. Era berean, eraispena EAEn hondakinak kudeatzeko,

eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazitakoaren arabera egin da.

D. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen 105/2008 Errege Dekretuak eraikuntza- eta birgaitze-hondakinen arloan arautzen duen indarreko legeria bete da. Horren arabera, eraikuntza-/birgaitze-proiektuek hondakinak kudeatzeko plan bat izan behar dute, hondakinen kantitatea eta nola berrerabiltzen, balioztatzen edo ezabatzen diren adierazita, eta behin hori egin ondoren hori egiaztatzen duen dokumentazioa eduki behar dute.

E. Aurreikusitako jarduerak garatzeko erabilitako osagaiek eta materialek ez dute amiantorik, ezta 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren XIV. eranskinean jasotako baimena behar duten substantzien zerrendan identifikatutako substantzia oso kezkagarririk ere.

xviii. Programaren oinarrietan kontuan hartutako modulu gehigarriak aplikatzeko eskakizuna betetzen da; izan ere, haietan adierazten da beharrezkoa dela sorkuntza-potentzia osoaren % 80, gutxienez, azalera osoa berritu den estalkiaren gainean egotea (amiantoa kentzea, egitura-aldaketa...). Aparkalekuetarako markesinen kasuan, sorkuntzako guztizko potentziaren % 80 markesina fotovoltaikoen gainean instalatzeko eskakizuna betetzen da.

xix. Aurreikuspenaren arabera, laguntzaren xede den autokontsumo-instalazioari lotutako kontsumitzaileak edo kontsumitzaileek kontsumitutako energia elektrikoaren urteko batura instalazio horrek urtean sortutako energiaren % 80 edo gehiago izango da betiere eta, gainera, laguntzen den instalazioari lotutako kontsumo guztia EAEko azken kontsumo gisa egingo da.

xx. Energia biltegiratzeko instalazioen kasuan, instalazio horiek konektatuta dauden energia elektriko berriztagarria sortzeko instalazioek urtean sortzen duten energiaren % 75 xurgatuko dute gutxienez.

xxi. Egiazkoak eta osoak dira jarduketa justifikatzeko datu guztiak eta aurkeztutako dokumentazio guztia, eta dagokion erantzukizuna bere gain hartzen du. Datuak edo dokumentuak faltsutuz gero, indarrean dagoen zehapen-araubide administratiboaren eta penalaren mende egongo da, baldintzak betetzearen egiazkotasunari dagokionez eta pertsona onuradunaren egoera eduki ahal izateko debekuren menpe ez dagoela adierazteari dagokionez.

2. Bizitegi-sektoreko jabeen erkidegoentzat, energia berriztagarrien erkidegoentzat, energiaren herritarren komunitateentzat eta nortasun juridikorik gabeko beste edozein elkarterentzat, kontsumitzaile guztien izen-abizenak, NAN/IFK eta kontsumo-puntu bakoitzaren lurralde historikoa jasotzen dituen dokumentua.

3. Egindako jarduketei dagozkien eskaeren edota kontratuen zerrenda sailkatua taula formatuan, pertsona onuradunak sinatua. Eskaera edo kontratu bakarra badago, ez da beharrezkoa zerrenda sailkatu hori. Honako hauek bildu beharko ditu gutxienez: eskatzailearen zenbakia, eskaintzaren zenbakia, eskaintzaren data, kontzeptua, eskaintzaren zerga-oinarria (BEZik gabe), hornitzailearen izena, eskaeraren data, eskaeraren zerga-oinarria (BEZik gabe), eta eskaeraren zenbateko totala BEZarekin. EZE edo Leasing bidez egindako jarduketen kasuan, EZEren legezko ordezkariak edo enpresa errentatzaileak sinatutako zerrenda aurkeztuko da, hurrenez hurren.

4. Eskaerak, aurrekontuen onespenak, edo pertsona onuradunaren (edota EZE edo errentatzailea, jarduketa EZE bitartez edo leasing bidez egiten bada, hurrenez

hurren), eta enpresa kontratist(ar)en artean formalizatutako kontratua/k, partida ekonomikoak xehatuta eta banakatuta aurkeztu beharko direlarik. Erantsitako partida ekonomikoak dauzkan dokumenturik ez da onartuko, baldin eta partida horiek galarazten badute azterlanaren garrantzizko partida ekonomikoak bereiztea. Eskaerek, aurrekontuen eta kontratuen onarpenek seigarren oinarrian adierazitako epeen araberako data izan beharko dute (jarduera ekonomikorik gabeko pertsona edo jarduera ekonomikoa duen pertsona izatearen arabera).

5. Jarduketa EZEren bidez gauzatu bada edo leasing bidez finantzatu bada: endosu-agiria edo kobratzeko eskubidearen lagapen-agiria, non pertsona onuradunak baimena ematen baitio EZEri edo leasinga errentatu duen enpresari laguntzaren ordainketa jasotzeko.

6. Fakturen eta dagozkien bankuko ordainketa-egiaztagirien taula formatuko zerrenda sailkatua eta pertsona onuradunak sinatua. Egindako inbertsioari dagozkion agiriak izango dira eta aurkeztutako aurrekontu eta kontratuei erantzungo diete. Honako hauek bildu beharko ditu gutxienez: igorlearen izena, fakturaren zenbakia, fakturaren data, kontzeptua, zerga-oinarria (BEZik gabe), zenbateko totala BEZarekin, ordainketa-data eta ordaindutako zenbatekoa (BEZarekin). EZE edo Leasing bidez egindako jarduketen kasuan, EZEren legezko ordezkariak edo enpresa errentatzaileak sinatutako zerrenda aurkeztuko da, hurrenez hurren.

7. Jarduketa subentzionagarria egin izana justifikatzen duten fakturak, pertsona onuradunaren izenean emanak egon beharko dutelarik, 4. oinarrian, 1. atalean zehazten den bezala, eta, banakatuta, partiden arabera ekonomikoki balioztatuta, eta seigarren oinarrian adierazitako epeen arabera datatuta. EZE edo leasing bidez gauzatutako jarduketen kasuan, jaulkitako fakturak aurkeztuko zaizkio EZE edo errentatzailea denari, hurrenez hurren.

   Dokumentuek seigarren oinarrian adierazitako epeen araberako data izan beharko dute (jarduera ekonomikorik gabeko pertsona edo jarduera ekonomikoa duen pertsona izatearen arabera).

8. Fakturen ordainketaren egiaztagiriak, laguntzaren pertsona onuraduna (edo EZE edo errentatzailea, EZE edo leasing bidez egindako jarduketen kasuan), ordainketa jasotzen duen hirugarrena, ordainketa-data (balio-data) eta laguntzaren xede den jarduera identifikatzeko beharrezko datuak identifikatzea ahalbidetzen dutenak.

   Dokumentuek seigarren oinarrian adierazitako epeen araberako data izan beharko dute (jarduera ekonomikorik gabeko pertsona edo jarduera ekonomikoa duen pertsona izatearen arabera), konturako balizko kopuruen ordainketa edo beste edozein kontzeptupekoa barne hartuta. Aurkeztutako dokumentuek onuradunaren funtsak (edo EZErenak edo errentatzailearenak, EZE edo leasing bidez gauzatu diren jarduketen kasuan) benetan atera direla egiaztatu beharko dute (adibidez, banku-transferentzia, ordainagirien edo kreditu-txartelaren zordunketa edo zordunketa, finantza-erakunde baten bidez egindakoa eta kontuan kargatutakoa ordainketa-egiaztagiritzat hartuta). Beraz, ez da onartuko eskudirutan edo ordainagirietan egindako ordainketei buruzko erantzukizunpeko adierazpenik. Pertsona onuraduna enpresa bat denean, ordainketek enpresari aplikagarria zaion sektore-araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordainduta egon beharko dute edo, bestela, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.

9. Pertsona eskatzailea titularra den kontuaren IBAN kodea egiaztatzeko banku-ziurtagiria. Kontu-zenbaki horretan ordainduko da azkenean ebatzitako

dirulaguntza, Programa honek eskatutako prozesuko betekizun guztiak betetakoan eta eskatzailea pertsona onuradun bihurtutakoan.

Jarduketa EZE baten bidez egin bada, energia-zerbitzuen kontratua sinatu den EZEren titulartasunekoa izan beharko du banku-kontuak; eta leasing-eragiketa baten kasuan, banku-kontua leasing-eragiketan parte hartzen duen errentatzailearen titulartasunekoa izango da (finantza-erakundearena edo leasing-konpainiarena).

EEEk pertsona eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

b) Egindako jarduketak justifikatzeko

1. Energia berriztagarrien iturriekin autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazio berriak egiteko inbertsioetarako, lehendik dauden instalazioak handitzeko eta energia elektrikoa sortzeko instalazio berriei nahiz lehendik dauden instalazioei lotutako biltegiratze-instalazioetarako inbertsioetarako.

i. «Ex post» jarduketa ongi egikaritu dela justifikatzen duen dokumentazioa, egikaritutako jarduketa motaren arabera, kasuan-kasuan, eta nahitaezkoa denean:

A. Obra-zuzendariak eta obra-egikaritzapenaren zuzendariak sinatutako ziurtagiria, nahitaezkoa denean.

B. Sorkuntza elektrikoko elementuak zerbitzuan jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena organo eskudunaren zigiluarekin.

C. Horrez gain, organo eskudunari emandako diseinuaren proiektuaren edo txosten teknikoaren kopia erantsiko da (jarduera-tipologiarentzat dagokionaren arabera).

D. Adierazpenaren arabera sorkuntza elektriko kolektibokoak diren edo familia anitzeko eraikin batean egiten diren proiektuek justifikazioa aurkeztu beharko dute, parte-hartzaile guztiek sinatutako akordioa aurkeztuz, banaketa-irizpideak barne, hau da, jabekideen erkidegoaren akordioa zein sorkuntza elektrikoaren erregistro administratiboan sartu izanaren justifikazioa, sorkuntza mota hori adierazita.

ii. Kontsumitzailearen/kontsumitzaileen Hornidura Puntuaren Kode Unibertsala (CUPS)

Elektrizitatea sortzeko instalazio kolektiboetan, kontsumitzaile guztien HPKUak eta kontsumo-puntu bakoitzaren lurralde historikoa jasotzen dituen dokumentua.

iii. Egindako jarduketen argazki-erreportajea, jarduketen ondorengo egoera orokorraren, eta kasuan-kasuan, laguntzaren xede diren ekipamendu eta instalazio nagusien egoeraren argazkiak biltzen dituena, baita monitorizazio-sistemaren datuak ikusteko pantailarenak ere.

iv. Diruz lagundu daitekeen jardueraren proiektuan “Eguzki-instalazio fotovoltaikoa jarriko den estalkiaren/estalkien azalera osoa berritzea (amiantoa kentzea, egitura aldatzea...)” sartzen bada, eta aparkalekuen estalki gisa balioko duten markesina fotovoltaikoak jartzen badira, azken proiektuaren planoak aurkeztu beharko dira, eta haietan argi eta garbi identifikatu beharko da estalkiaren/estalkien azalera osoa eta/edo markesina/k.

v. Erantzukizunpeko adierazpena, eskatzaileak edo haren legezko ordezkariak sinatua; bertan, behar bezala justifikatu beharko da, urteko zenbaketan, laguntzaren xede den sortze-instalazioaren kontsumitzaile edo kontsumitzaile elkartuek kontsumitutako energia elektrikoaren batura instalazio horrek sortutako urteko energiaren % 80 edo gehiago dela, eta, gainera, laguntzaren xedea den instalazioari lotutako kontsumoa EAEren barruko azken kontsumo gisa egingo dela (eredua EEEren web orrian eskura daiteke).

vi. Eskatzaileak edo haren legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, honako hau jasotzen duena: obrak egin bitartean, sortutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez-arriskutsuen gutxienez % 70 (pisuan) (EHZ 17 05 04 kodea duten hondakinak salbuetsita) beste material batzuk berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balioztatzeko prestatzeko baldintza bete dela, beste material batzuk ordezteko hondakinak erabiliz egindako betegarriak barne.

EEEk pertsona eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-justifikazioa behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

2. Kontsumo termikoak energia berriztagarrien bidez elektrifikatzeko instalazioak egiteko inbertsioetarako

i. «Ex post» jarduketa ongi egikaritu dela justifikatzen duen dokumentazioa, egikaritutako jarduketa motaren arabera, kasuan-kasuan, eta nahitaezkoa denean:

A. Obra-zuzendariak eta obra-egikaritzapenaren zuzendariak sinatutako ziurtagiria, nahitaezkoa denean.

B. Sorkuntza termikorako elementuak zerbitzuan jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, EAEko organo eskudunaren zigiluarekin, EITErekin bat.

C. Horrez gain, diseinuaren proiektuaren edo txosten teknikoaren kopia erantsiko da (jarduera-tipologiarentzat dagokionaren arabera) organo eskudunari eman baldin bazaio.

ii. Oinarri hauetan jasotako bero-ponpen kasuan, ekipoaren fabrikatzailearen zehaztapen teknikoen bidez egiaztatuko da SPFaren balioa.

iii. Egindako jarduketen argazki-erreportajea, jarduketen ondorengo egoera orokorraren, eta kasuan-kasuan, laguntzaren xede diren ekipamendu eta instalazio nagusien egoeraren argazkiak biltzen dituena, bai eta bere ezaugarrien plakena ere. Monitorizazio-sistemarik izanez gero, datuak bistaratzeko pantailako irudiak emango dira.

iv. Aire-aire edo rooftop aire-aire bero-ponpa bidezko klimatizazio-instalazioaren kasuan soilik aurkeztu beharko dira honako hauek:

A. Elektrizitatea sortzeko instalazioa autokontsumo indibidualekoa bada 244/2019 EDaren arabera:

- Sorkuntza elektrikoko elementuak zerbitzuan jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena organo eskudunaren zigiluarekin.
- Diruz lagunduko den klimatizazio-sistema kokatuta dagoen helbidearen elektrizitate-horniduraren faktura.

B. Elektrizitatea sortzeko instalazioa autokontsumo kolektibokoa bada 244/2019 EDaren pean (multzokatzea, energia-komunitatea…):

- Sorkuntza elektrikoko elementuak zerbitzuan jartzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena organo eskudunaren zigiluarekin.
- Diruz lagunduko den klimatizazio-sistema kokatuta dagoen helbidearen elektrizitate-horniduraren faktura.
- Kontsumo elektrikoak banatzeko akordioa, laguntzaren onuradunaren CUPS deitutakoa agertzen duena.

C. Instalazioa energia-komunitate baten barruan sortzen den energia elektriko berriztagarrikoa bada eta ez bada autokontsumorako 244/2019 EDaren arabera:

- Organo eskudunaren aurrean erregistratutako elektrizitatea sortzeko instalazioa zerbitzuan jartzeko akta.
- Klimatizazio-instalazioaren kokalekuko zuzendaritzaren CUPS komunitate energetikoaren kide dela egiaztatzen duen dokumentua (atxikimendu-kontratua, komunitate energetikoak emandako ziurtagiria ...).
- Diruz lagunduko den klimatizazio-sistema kokatuta dagoen helbidearen elektrizitate-horniduraren faktura.

D. Instalazioa energia elektriko berriztagarria sortzeko bada, sare bidezko salmentarekin, eta betiere honako bi egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

1. % 50etik gorako jabetza-lotura dago elektrizitatea sortzeko instalazioaren eta klimatizazio-instalazioaren artean, eta, gainera, bi instalazio horiek EAEn daude;
2. Klimatizazio-instalazioaren kokapena eta elektrizitatea sortzeko instalazio berriztagarriarena berdinak dira.

- 1. eta 2. kasuetarako, organo eskudunaren aurrean erregistratutako elektrizitatea sortzeko instalazioa zerbitzuan jartzeko akta.
- 1. kasuan, eskatutako jabetza-lotura egiaztatzen duen agiria.
- 2. kasurako, diruz lagunduko den klimatizazio-sistema kokatuta dagoen helbidearen elektrizitate-horniduraren faktura.

E. 5 kW-etik beherako potentzia termiko izendatua duten aire-aire bero-ponpen bidezko klimatizazio-instalazioetan, eskatzaileak enpresa instalatzaile gaituak edo, hala badagokio, gaitutako pertsona instalatzaile batek egindako adierazpen bat aurkeztu beharko du. Adierazpen horretan ziurtatuko da egindako instalazioak indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza teknikoak, erregelamendua eta eraginkortasuna betetzen dituela.

Aitorpen horretan, gutxienez, honako hauek identifikatu beharko dira: instalatutako ekipoa, potentzia termikoa, jardunaren kokalekua eta instalazio-mota horretarako ezarritako baldintzak betetzen direla; gainera, egiaztatutako teknikariak sinatu beharko du.

EEEk pertsona eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-justifikazioa behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.